

# 2012/13 Memoria

innobasque

berrikuntzaren euskal agentzia

agencia vasca de la innovación

# Aurkibidea


06 “Berrikuntza egitea eraldatzea da”. Iñigo Urkullu, **Lehendakaria** eta **Innobasque**ko Ohorezko presidentea.

08 “Etorkizunak berrikuntza behar du eta inkonformismo eraikitzailearen jarrera eguneroko bizitzara eramateko gai izan gaitezela”. Alberto García Erauzkin, **Innobasque**ko presidentea.

09 “Berrikuntza orainaldia da eta Innobasque proiektu berritzailea da bere baitan”. Guillermo Ulacia, **Innobasque**ko presidente ohia.

10 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua.

12 Innobasque zenbakitan.

14 2012-2013 Berrikuntzaren eszenatokia.

20 Aginte organoak.

20 | Zuzendaritza Batzordeko kideak eta Ohorezko bazkideak.
22 | Bi urte hauetan.
24 | Unibertsitatea, ikerkuntza eta berrikuntza.

26 Innobasque Proiektuak
3 prozesu: berrikuntza-sistema, dinamizazio sozio-ekonomikoa eta sozializazioa.

27 | “Indartzea eta hazkuntza”.
Txema Villate, **Innobasque**ko zuzendari nagusia.

28 Berrikuntza-sistema.

29 | Berrikuntzaren ebaluazioa eta monitorizazioa.
30 | Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen berrantolakuntza: Teknologia Azpisistema. Zergatik eta zertarako?
Arantza Tapia. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua. **Eusko Jaurlaritza.**
31 | Nazioartekotzea.
32 | Berrikuntza-Soziala eta politika publikoak.
36 | Elkarrizketa: emakumea eta berrikuntza:
Emilia Málaga, **UGT Euskadi**ko Berdintasun Sailaren arduraduna eta Matilde Elexpuru, **Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarte**ko presidentea.

38 Dinamizazio sozio-ekonomikoa.

39 | Enpresen azeleratzea.
40 | Elkarrikustea eko-berrikuntzaren inguruan.
Asís Canales, **Iberdrola**ko Erosketa eta Aseguruen zuzendaria eta Rafael Barrenechea, **Danobat Taldea**ren zuzendari ohia.
42 | Eko-berrikuntza.
44 | Elkarrizketa: Berrikuntza eta osasuna.
María Aguirre, **Eusko Jaurlaritza**ren Osasun Ikerkuntza eta Berrikuntza zuzendaria eta Azucena Castro, **OWL**ren zuzendari nagusia.
46 | Gizarte efiosasuntsua.
48 | Elkarrikustea laugarren sektorearen inguruan:
Txema Franco, **Lantegi Batuak**-eko zuzendari nagusia eta Sergio Murillo, **Bizkaiko Foru Aldundi**ko Autonomia Pertsonalaren Sustapena eta Mendekotasunarekiko Laguntzaren zuzendari nagusia.
50 | Laugarren Sektorea.
52 | Adimen Emozionalaren Patzuergoa.
54 | Diplomazia berritzailea.
56 | Elkarrizketa: teknologia eta berrikuntza.
Javier Ormazabal, **Tecnalia**-ko presidentea eta Jesús Mª Iriondo, **IK4**-eko presidentea.

58 Sozializazioa.

59 | Gazteak helburu.
60 | Bazkideak helburu.
62 | Gizartea helburu.
65 | Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sarea helburu.
66 | Innobasque komunikabide eta sare-sozialetan.
68 | Komunikabideak berrikuntzarekin konprometituta.

70 2012-2013 Mugarriak.

72 Ekonomia-finantza balantzea.

72 | Xabier Iturbe, **Innobasque**-ko diruzaina.
73 | Urteko kontuen auditoria-txostena.

# Berrikuntza
## egitea eraldatzea da

Euskadin letra larriekiko **eraldatze-une batean** bizi gara, berrikuntza eskatzen digun une batean. Positibotasunez aurre egin beharreko une bat. Berrikuntza egitea aldatzea da, Churchill-ek zioenez “hobetzea aldatzea da, eta perfektua izatea sarritan aldatzea da”. Partekatzen du ideia hori eta Innobasquek lagundu egiten gaitu berrikuntza, eraldaketa eta aldaketako bide horretan.

Berrikuntza egitea eraldatzea da eta Eusko Jaurlaritzak **berrikuntzako politika berri bati** ekin dio, aldaketari aurre egiteko, hobetzeko. **Berrikuntzako mapa berria aurkeztu dugu Euskadin**. Iparraldean espezializazio adimenduneko Ris 3 programa Europan. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako euskal sarearen oinarrian, Teknologia-zentroak, IZKak, OIBZak eta Unibertsitateak. Hitz batean, gure gaitasun zientifikoak eta teknikoak. Ekialdean baliabide propioa, gure ekonomiako sektore traktoreak eta berrikuntzari laguntzen dioten politika publikoak euskarri gisa. Mendebalean Horizon2020 programak planteatzen dituen aukerak eta erronka sozialak: energia-erronka, osasun- eta elikadura-erronka, klima-aldaketaren erronka, industria aurreratuaren erronka eta mugikortasun jasangarriaren erronka.

**Euskadiren etorkizuna berrikuntzako mapa honetan aurkitzen da**, gaur eguneko gaitasunen eta erronka berriek irekitzen dizkiguten aukeren bateragunean. Mapa honetan berrikuntzako euskal politikarako hiru apustu estrategiko handi konfiguratu dira: fabrikazio aurerratua, energia-sektorea eta biozientziak/osasuna binomioa. Berrikuntza egitea jardutea da, euskarri horizontaleko elementuak finkatzea, zeinek bideratuko duten sistemaren osotasunak funtzionatzea: atrakzioa eta talentuaren kudeaketak, berrikuntza ETEei eranstea, lankidetza publiko eta pribatua prozesu teknologiko traktoreen garapenerako, Unibertsitatearen parte-hartzea berrikuntza-sisteman, nazioartekotzean eta I+Geko inbertsioak erakartzean. Oinarri horretan ardaztuko da gure berrikuntza-estrategia 2020ko horizontean eta **gure konpromisoa eraldatzeko jardutea da.**

**Berrikuntza egitea inbertitzea ere bada**. Jaurlaritzak bere osotasunean 5 milioi euroko inbertsio publiko bat esleitu dio berrikuntzari astero. Gainera, eskakizun-maila zorrotzago baten erronka geure gain hartzea planteatu dugu. Eskari sozial bat da eta horren ezarpenean enfasi handiago bat ezartzea proposatu diogu geure buruari, berrikuntzako emaitzen aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan. Eskari horri erantzuten diogu berrikuntzarekiko konpromiso soziala hedatzearen xedearekin. Ildo horretatik, Innobasqueren lana oinarrizkoa izan da, zeren eta gure Herrialdea berrikuntzaren europar abangoardian kokatzeak aginte publikoen konpromisoa eskatzen du, baina ezinbestekoa da gizartea bere osotasunean harturik lehiatze aktiboan aritzea.

**Berrikuntzarekin konprometituriko gizarte baten beharra dugu**, zeren eta berrikuntzako apustua etorkizuneko inbertsioa baita. Eusko Jaurlaritzak babestu egiten du konpromiso hori berrikuntza delarik gure Herrialdearen berraktibatze ekonomikoaren lau gakoetako bat bezala. **Inbertsioa, industria, nazioartekotzea** eta **berrikuntza** dira **euskal ekonomiaren geroko** eragileak. Erdaraz “4 i”en estrategia deitzen den horri ilusioaren “i”-a gehitu nahi diot. Ekonomia berraktibatzeko ilusioa, hazkuntzaren bidera itzultzekoa, berritzekoa, denon artean Herrialde hau aurrera ateratzekoa, aurrerapena eta enplegua bultzatzekoa. Innobasqueren “i”-ak berrikuntzan hazten lagundu digu, baliabideak bideratzen pertsonek atergabeko hobetzea sustatzeko beharra senti dezaten. Honako hau esker onezko eta hasitako bidean jarraitzeko adorezko mezu bat da, berritu, eraldatu eta “sarritan aldatzera”.





## “Etorkizunak berrikuntza behar du eta inkonformismo eraikitzailearen jarrera eguneroko bizitzara eramateko gai izan gaitezela”

Alberto García Erauzkin

**Innobasqueko** presidentea

ikusi bideoa

Alberto García Erauzkin, Innobasqueko presidenteak adierazi du, berrikuntza jarrera bat dela esaten dugun arren, konfiantza, motibazio eta ausardiazko ariketa ere badela pertsonen arteko lankidetzatik aldaketak sortzeko. “Liderrak dira aldaketak aktiboki sortzeko norberaren gaitasunetan motibazio eta konfiantza hori izateko gai direnak”. Horrela, lidergoa eta berrikuntza eskutik doazela uste du. “Liderrak berritzaileak dira eta berritzaileek liderrak izan behar dute. Berrikuntzak lidergora darama eta lidergoa berrikuntza egiten duena da”.

Gizartea beste elementu ezinbesteko bat da. García Erauzkin-ek dio motibazio, konfiantza eta ausardiazko ariketa horretara egokitu beharra dugula hobetu, aldatu eta eraikitzeko. “Hain zuzen ere, lauko helizea dagoela ikasi dut Innobasquen: ikerkuntza, Unibertsitatea eta Herri Administrazioa, enpresak eta gizarte zibila oro har”.

### Eraldaketa eta aliantzak

“Posible al da eraldaketa?”, galdetzen du Innobasqueko presidenteak. Erantzuna garbia da: mundu hobea eta jasangarriagoa posible da, baina horrek ez du esan nahi krisi aurreko garaietako hazkunde-kuotak izatea. “Behar edo premiatik ere badator berrikuntza, eta hobetu beharra dago, baina horretarako baldintza ez da hazkunde garrantzitsu edo azeleratua”, adierazi du.

García Erauzkinek dio berrikuntzak guztiontzat etekinak, hobekuntzak eta iraunkortasuna sortzen dituela esaten badugu, lankidetzaz aritu behar dugula. “Guztiok elkarrekin lan egiten badugu, lankidetzazko berrikuntza egiten baldin badakigu eta aliantzen balioa egiazki ikusten badugu, ziur asko emaitza positiboa egongo dela guztiontzat ere.” Uste du ezinbestekoa dela nork aldamenekoarekin lan egiteko espazioa aurkitzea, hori erraza izan ez arren.

### Jarreratik jardunera

“Etorkizunak berrikuntza behar du eta inkonformismo eraikitzailearen jarrera  hori eguneroko bizitzara eramateko gai izan gaitezela”. Horretarako, arazoak lokalizatzea proposatzen du, ez konformatzea horiek hor egotearekin eta era eraikitzailean irtenbidea emateko lan egitea. Ez mugatzea gaizki dagoenaren edo hobetu daitekeenaren diagnosia egitera, baizik eta hori nola hobetu daitekeen pentsatzea.

“Eta hemen, berriro ere, jarreratik jardunera igaro behar da. Konforme ez gelditu, zertan konforme ez gauden diagnostikatu, egiteko modua bilatu, egiteko gure ahalmen edo gaitasunetan  konfiantza izan, aldaketak sorrarazi, proba egin eta akatsa onartu, zuzendu, berriro proba egin eta ez atsedenik hartu irtenbidea aurkitu arte”. García Erauzkin-ek dio gizateriak zerbait ona frogatu badu hauxe dela: arazo guztiei irtenbideak aurkitu dizkiela benetan erabili duenean berrikuntza, inkonformismo eraikitzaile gisa ulertuta.

### Innobasque, pertsonak, taldea eta plana

“Innobasqueko presidente gisa orain mahaiaren bestaldean aurkitzen naiz. Innobasqueko bazkide bat nintzen, Zuzendaritza Batzordean nengoen, egiten zena ikusi eta behatzen nuen eta norbaiti bururatu zitzaionean ni presidente izan nintekeela, lehenengo aurkitu dudana pertsonak izan dira”. Innobasquez errealitate gisa hitz egiten du, onespena duen errealitate bat, bai Euskal Herrian eta bai Espainiako estatuan eta nazioartean ere. Berriro azpimarratzen du Innobasquek plan bat marraztua duen lantalde bat duela, eta plan hori etorkizunerako estrategia bezala bazkide guztiek onartu dutenaren emaitza dela. “Inkonformismo eraikitzailearen jarrera horretan egiten ari dena berrikusteko prest dagoen lantalde bat, aldaketak sortzeko gehiago eta hobeto nola egin dezakegun esateko prest dagoena”.



# “Berrikuntza orainaldia da eta Innobasque proiektu berritzailea da bere baitan”

Guillermo Ulacia Innobasqueko presidentea izan da  2009ko azarotik 2013ko iraila arte. Denboraldi horretan nabarmentzen da Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Antolakuntzak Innobasqueri egindako aitortza, esperientzia berezi eta aitzindari gisa kalifikatuz helize laukoitzaren hedapenarengatik, izan ere berrikuntza-eredu bat gizarte zibila mundu akademikoa, ekonomikoa, enpresakoa eta publikoarekin integratzen dituena da.

### Berrikuntza aldaketa-eragile gisa

Ulaciak dio berrikuntza dela gaur egun gizarteak behar duen indarretako bat eraldaketa eta hazkuntza ekonomikoko prozesu bat burutzeko eta eredu hori eta  ezin daitekeela izan XX. mendean izan duguna bera. “Erronka desberdinak ditugu eta sozialki desberdinak gara. Baditugu palankak aldaketa bultzatzen dutenak esaterako, zahartzea, hezkuntza, kultura eta gure baloreak”. Eta zera dio, dagoeneko ez gaudela etxeko merkatu batean, baizik eta globala bihurtu den batean, non lehiakortasun-printzipioak aldatu egin diren. Garrantzitsua honako hau da: “ez da guk aldatu behar dugun ala ez. Mundu-mailako lehiakortasun horretara egokitzen ez bagara nekez izango ditugu lehen genituen ongizate-maila eta bizi-kalitatea”.

“Berrikuntza berrikuntza teknologikoa eta soziala da”, segurtatzen du Ulaciak. Azken horretaz nabarmentzen du beharrezkoa dela zeren enpresa guztiek baitituzte pertsonak, zeinak erantzukizun egokiarekin postuetan egonik, bestelako era batean jokatzeko gai diren beste herrialde eta enpresetan ematen diren proposamenekiko.

### Hazkuntza ekonomikoa eta ongizate soziala

Innobasquek ez du soilik balio izan berrikuntzak izan behar duenaren kontzeptu hori zabaltzeko, baizik eta hura neurtzea errazțuko duten ereduak sortzen ahalegindu da. Ulaciak dio hazkuntza errazteko balio izan behar duela, ez ekonomikoa bakarrik,  bai eta pertsonen arteko lankidetza eragiten eta sortzen duen komunitatearen ongizatea ere bai.

“Frogatu izan da azken urteetan lortu ditugun ekoizkortasun-hobekuntzetatik, %30 kapital ukiezinaren ekarpenari zor zaiola”. Horrek ulertarazi behar digu –adierazten du – ezagutzako gizarte bateko hazkuntza-kontabilitatean, berrikuntzak funtsezko papera jokatzen duela denon artean onartu ditugun helmugak lortzeko”.

“Berrikuntza orainaldia da, ezin ditzakegu utz gauzak biharko astia dugula eta etorkizunean zerbait hobea gertatuko dela”. Ulaciak kualifikazioaz, gizartearen partaidetzaz baliatzeaz hitz egiten du, orainaldiko zer erronka ditugun definitzeko helburuarekin, zein diren zailtasunak eta nola aurre egin aldaketari berrikuntzaren bitartez.”Berrikuntzak eratuko du asmoan dugun gizarte-mota”.

Innobasque, adierazten du, proiektu berritzailea da bere baitan eta gakoetako bat konektibitatea da. “Ez dugu zentratu behar  barnean egiten dugun horretan soilik, kanpoko munduarekin ere konektatu behar dugu”. Eta ziurtatzen du, konexio horiek aukera bat direla gure nortasun-ezaugarriak erakusteko. “Innobasquek Euskadiko marka baten konektibitate-, printzipio- eta balore-transmisioaren paper hori  jokatu behar du”.

### Innobasqueren barruko eginkizun proaktiboa

“Presidente izateak ez nau egin militanteago”. Proiektua gizarteratzera gonbidatu zutenean ardura exekutibo bat zuela eta ekimen interesgarri bat bezala ikusi zuela, baina behatzaile rol bat mantentzen zuela”.

Orain segurtatzen du paper hori aldatzeko aukera eduki izanak  beste proaktibo batera aberastu egin duela. “Adore ematen diet guztiei erosotasun-jarrera hori utz dezaten, nola eboluzionatzen duten ikusteko eta zer kontatzen duten entzuteko, zer dioten eta zer egiten duten, Innobasqueren barruan protagonista izateko”.



Guillermo Ulacia

**Innobasqueko** presidente ohia

ikusi bideoa

# Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako
## Euskal Kontseilua

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan dagoen organo gorena da zientzia, teknologia, ikerkuntza eta berrikuntzaren parte hartze-, aholkatze- eta lideratze-lanetan.

ZTBEKek bazkide gisa ditu Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun; Ogasun eta Finantza; Hezkuntza; Hizkuntza Politika eta Kultura kontseilariak. Baita  Kontseiluan parte hartzen duten hiru lurraldeetako Diputatu Nagusiak, Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko Errektoreak, bai eta Innobasque eta Ikerbasque-ko ordezkariak ere.

2013an, behin kontseilu berria sortua zegoela, bi bilera antolatu ziren:



1. bilera
**2013ko irailak 13**

ikusi bideoa



2. bilera
**2013ko abenduak 4**

ikusi bideoa

*2014ko apirilean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK) arautzen duen Dekretua behin onartua, haren osaketa sendotu da kide berriak gehituz honako teknologia-korporazioen ordezkapen gisa: Tecnalia eta IK4, Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademia, eta B+G-ean inbertsio pribatuan traktore diren lau euskal-enpresa: Iberdrola, Idom, CIE Automotive eta CAF .*





Iñigo Urkullu
LEHENDAKARIA



Jon Darpón
OSASUNEKO SAILBURUA



Arantza Tapia
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUA



Ricardo Gatzagaetxebarria
OGASUN ETA FINANTZA SAILBURUA



Cristina Uriarte
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA



José Luis Bilbao
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA



Martin Garitano
GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA



Javier de Andrés
ARABAKO AHALDUN NAGUSIA



Iñaki Goirizelaia
UPV/EHUKO ERREKTOREA



José María Guibert
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA



Iosu Zabala
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA



Fernando Cossío
IKERBASQUEKO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA



Alberto García-Erauzkin
INNOBASQUEKO PRESIDENTEA

# INNOBASQUE
## ZENBAKITAN

Dinamizazio Sozio-ekonomikoa

Sozializazioa

Berrikuntza Sistema

**3** prozesu martxan

**25** proiektu aktibo

**38.544** mobilizatutako pertsona

**158** bazkide berri

**740** erakundeak

aktiboki parte hartzen proiektutan

**40.300** kide sare-sozialetan

ERAKUNDEAK ETA PERTSONAK

PROZESUAK

NAZIOARTEKOA

ARGITALPENAK / ERAGINAK / AURKEZPENAK

Parte hartzea

**10** politika publikoetan

Innobasquek gobernu-organo eta administrazio kontseilutan hartzen du parte

**18** erakundetan

**6.156** inpaktuak

eragin komunikabideetan

**409** aurkezpen publiko

**27** argitalpen berri

**64** nodo nazioarteko konektatuta




## SARIAK ETA AITORTZAK

### 2012

- Europar Batasunaren Aitortza **EcoEuskadi 2020-ri**
- Nazio Batuen Saria Etxebizitzaren aldeko **Hitzarmeneko partaidetza-ereduari**
- Buber Saria **Kronikoen Sareari** bez hiritarraren **zerbitzurako web hoberenari** bezala
- **Kronikoen Sarea** Fundetec 2012 sarien finalista bezala
- SIP Singapur Fellow Award **Basque Country Social Innovation- ra**

### 2013

- Aitortza **Innobasqueri** berrikuntza sozialeko Euskadirentzako bere estrategiarengatik **"Guide to Social Innovation" -en** (Europar Batzordea)
- Fekoor 2013 Saria **Kronikoen Sareari inklusio gaian eta aukera-berdintasunean praktika on** bezala
- Sari Kapitala **Berrikuntzaren Sustapenarión**

# 2012-2013
## Berrikuntzaren eszenatokia

Has gaitezen oroitzen nolakoak izan ziren 2012ko hasierak. “Euroaren kolapsoak” balantzaka jarri zuen Europa harik eta uda horretan Mario Draghik honako hau iragarri zuen arte: Europar Banku Zentralak “beharrezko zen guztia egingo zuela euroa preserbatu eta, sinets iezadazue, aski izango da”. Euroguneko hamazazpi herrialdeak, nahiz eta herabeti, krisitik irteteko estrategia bat marrazten hasi ziren. Estatu-mailan gai bakarreko urtea izan zen: krisia, krisia eta krisi gehiago”. 2013 bat iragartzen zen “erraza izango ez zena.”

Lan-gabezia hazten ari zen bitartean, jendeak honako terminoak ezagutu zituen: “bitcoin”, “crowdfunding”, grafenoa, gauzen Interneta, edo 3D inprimagailuak. 2013an, gizarte-ondoeza areagotzen ari zen bitartean, ordu arte ez bezala, Frantzisko Aitasantu berria bere aurrekoaren bizikide izaten hasten da. Garaien aldaketa-zantzuak?

Asko dira, “krisi handiaz” harago eredu sozio-ekonomikoaren eraldaketa presazko batean gaudela begiztatzen dutenak**, irtenbideak eta egokitze bizkorrak behar dituena. Eszenatoki horrek mesede egiten die lurralde eta pertsona berritzaileei.**

**Ikerkuntzako hamarkadek frogatu diote berrikuntza dela irtenbideen hasiera-emaile handiena epe luzean ekoizkortasun eta ongizate bihurtzen direnak**, eta **erakunde berritzaileak direla kalitateko lanpostu gehien sortzen dituztenak. Berrikuntza sustatzea**, ondorioz, lehentasuntzat jo beharko litzateke, zeren eta ingurune bat behar baitugu, **non enpresek konfiantzarekin berrikuntza egin dezaten, ekintzaileek arriskuak har ditzaten, hesi gutxi egon daitezen ideia berriak, eta aktore berriak sar daitezen, eta non pertsona bakoitza berrikuntzaren eta eraldaketa sozialaren eragile izan dadin**. Eredu **sozio-ekonomiko berri bat,** zeinean kohesioa eta lehiakortasuna batera joan daitezen giza garapen jasangarrirantz.

Asko daukagu ikasteko oraindik lurralde berritzaileenetatik, baina ziur gaude Innobasqueren sare indartsuari ez zaizkiola gogoa eta askonahia falta. 2012-2013 memoria honetan zehar Innobasquen garatutako jardueraren berri emango dugu, baina ekin aurretik gai batzuk proposatzen dizkizugu gogoeta honetan partekatzeko.

### Mundu-berrikuntzako liderrak

Berrikuntza-sistemen emaitzak aztertzen baditugu, Europar Batzordeko presidentea kezkatu zuen datu bat aurkitzen dugu IUSen (Innovation Union Scoreboard), hiru mundu-liderren azken aurkezpenean: Hego Korea, Estatu Batuak eta Japonia azken aurkezpenean. Eta, izateaz gainera, gehitzen ari dira beren abantaila Europarekiko.

Hiru liderrok nabarmen garaiagoak dira enpresa-inbertsioari dagokionez I+G-ean, baterako argitalpen publiko eta pribatutan, patentetan, eta heziketa-mailan (hirugarren hezkuntza bukatu duen biztanleriaren proportziotik neurtuta). Europak distantziak ditu Australia, Kanada eta BRICeko herrialdeekiko, salbu Txina, zeinek nahiz eta europar errendimendu ertainaren %44an egon arren, tartea murriztu egiten baitu, EB-27 baino erritmo bizkorragoan ari baita aurreratzen.

### Zein izan dira 2012-2013ko enpresa berritzaileenak?

Erreferentzia ezagunenen 2012 eta 2013ko datuak kontuan hartzen baditugu Forbes eta Fast Company argitalpenak, edo Booz&Co (PwC) eta Boston Consulting Groupeko ranking-ak, eta era erakunde berritzaileenen lehen 10 postuak berrikusten baditugu, 43 enpresa desberdinen izenak identifikatuko ditugu. Haietan estatubatuarren nagusitasun argia nabari da (%70), gero eta asiarren presentzia nabarmenagoa (Txina, Japonia eta Hego Koreak %20 hartzen du), eta Erresuma Batua, Alemania, India eta Brasilen testigantzazko presentzia. Jarduera-sektoreka batez ere bi bloke nagusi aurkituko ditugu, IKZ eta fabrikazioa Bioteknologia-pharma, energia, zerbitzu aurreratuak, eta banaketa lagun dituztela.

## 2012

| FAST COMPANY | BOOZ&CO | BCG | FORBES |
|---|---|---|---|
| APPLE | APPLE | APPLE | SALESFORCE |
| FACEBOOK | GOOGLE | GOOGLE | ALEXION PHARMACEUTICALS |
| GOOGLE | 3M | SAMSUNG | AMAZON |
| AMAZON | SAMSUNG | MICROSOFT | RED HAT |
| SQUARE | GENERAL ELECTRIC | FACEBOOK | BAIDU |
| TWITTER | MICROSOFT | IBM | INTUITIVE SURGICAL |
| OCCUPY MOVEMENT | TOYOTA | SONY | RAKUTEN |
| TENCENT | PROCTER& GAMBLE | HAIER | EDWARDS LIFESCIENCES |
| LIFE TECHNOLO-GIES | IBM | AMAZON | LARSEN & TOUBRO |
| SOLAR CITY | AMAZON | HYUNDAI | ARM HOLDINGS |

## 2013

| FAST COMPANY | BOOZ&CO | BCG | FORBES |
|---|---|---|---|
| NIKE | APPLE | APPLE | SALESFORCE |
| AMAZON | GOOGLE | SAMSUNG | ALEXION PHARMACEUTICALS |
| SQUARE | SAMSUNG | GOOGLE | VMWARE |
| SPLUNK | AMAZON | MICROSOFT | REGENERON PHARMACEUTICALS |
| FAB | 3M | TOYOTA | ARM HOLDINGS |
| UBER | GENERAL ELECTRIC | IBM | BAIDU |
| SPROXIL | MICROSOFT | AMAZON | AMAZON |
| PINTEREST | IBM | FORD | INTUITIVE SURGICAL |
| SAFARICOM | TESLA MOTORS | BMW | RAKUTEN |
| TARGET | FACEBOOK | GENERAL ELECTRIC | NATURA COSMETICOS |



**Talentu ikertzaileak nola eragiten duen Euskadin**

Talentuaren erakarpen eta egonkortasuna erakundeen eta herrialdearen eraldaketaren giltzarriak dira. Epe luzean, talentu horrek ezagutza berriak sortzen ditu bai eta lehiakorragoa, dinamikoagoa eta kritikoagoa den gizartea ere. Epe laburrean, ikerkuntzak funts forman Euskadirentzat berehalako itzulerak lortzen ditu, inbertsioan eta enpleguan bihurtzen direnak.

**Fernando Cossío**
**Ikerbasque**ko zuzendari zientifikoa eta **Innobasque**ko presidenteordea

Baina bada beste xehetasun bat arreta erakar dezakeena. Enpresa bakar bat ageri da aipaturik lau sailkapenen lehen 10 postuetan azken bi urteotan: Amazon.

## Eraldaketa digitala

Amazon IKZ enpresa bezala kontsideratu behar al da? Jeff Bezos-ek sortutako enpresa pasatzen den tokitik (liburuak, musika, elektronika, elikadura...) mehatxu suntsiezin bezala agertzen den arerio haren irudia oroitarazteko gaitasuna du. Nahiz eta egiazko mehatxua lasterketa digital geldo baina errukigabea izan atalase digitalaren behealdean kokatutakoak desabantaila nabariko egoeran uzten dituen. Digitalizazioak informazio-kopuru handiak kudeatzeko ahalmena ematen digu eta prozesu sistematikoago bihurtzen da, zeinek eskatzen baitu non eta nola ezarri teknologia digital berriak eta negozioen fokapen berriak, eta non saihestu. Ez ote da komeni pentsatzen hastea IKZen aroa balio desberdingarri positiboko elementu gisa lehenbailehen gainditu behar dela, eta “soilki”, ez gehiago ez gutxiago, honako hau kontsideratu: IKZen garapen egoki bat gabeko enpresa batek utzi egiten diola lehiakorra izateari? Gaur eguneko merkatuetan lehiakortasunari eusteko, enpresa guztiak, arau orokor bezala harturik, behar adina garaturik eduki beharko lukete haien erabilera, eta maila handiagoan edo txikiagoan IKZ enpresa kontsideratuak izan beharko lukete. Horrek esan nahi du haietako bakar bati ere ez litzaiokeela izen hori eman behar.

## Joera teknologikoak

Gauza egiazki berritzaileak oraindik ez dira abian jarri, zientzia eta teknologiatik iragartzen dute, oraindik etortzeko dagoena iraultza bat izango dela. Aurrerapen teknologikoek irtenbide berritzaileak agintzen dituzte mundu-mailako gura aldiko erronka larrienentzat, hasi baliabideen urritasunetik eta klima-aldaketaraino.

## Ezkutuko berrikuntza

Teknologien onurek soilik lortzen dute beren betetasuna berrikuntza azal dadin baldintzak-sortzera bideratutako fokapen integrala ezartzen denean. Nitxo teknologikoetan zentraturiko fokapen baten aurrean, gure ere sozio-ekonomikoa birpentsatzeko aukera irekitzen da (negozioak egin, komunikatu, gehiago eta hobeto bizi, partaidetza soziala kudeatu, politika...) eta birpentsatu, halaber, behar berri horiek nola ari diren eragina izaten gure berritzeko eran, I+G-az harago, industriaz eta usadiozko negozioez harago. Lankidetza-eredu berriak garatu ditzakegu gure gizarterako balioak sortzeko gai direnak, erantzukidetzatik hasi, hiritarrekin konpromiso berriak eraikiz, lankidetza biziago baten bitartez, “berrikuntzaren gap-a”, berrikuntzako kapital ezkutukoa azalarazi eta eransteko gai dena

## Errenta-tartea

1960tik inoiz izan gabe zegoen hain negatiboa. Ekonomia bere ahalbideen azpitik garatzen denean, eta hori ari da gertatzen 2009tik hasita, “errenta-tarte” gisako diagnosia egiten zaio horri. Teknikoki gaurko BPGaren eta gure pertsonak, enpresak eta azpiegiturak gaitasun betean funtzionatzen arituko balira lortuko genukeenaren arteko desberdintasuna da. 2013an diferentzial hori %5kotzat jo zen Estatuaren osotasunerako.

## Gizateria hobetzen ari da

Mundu guztiko pertsonak gero eta osasuntsuagoak, ikasiagoak, baketsuagoak dira, gero eta konektatuago daude eta luzeago bizi izaten dira. Haurren hilkortasun-tasa %47 gutxitu da 1990tik hasita, garapeneko munduaren muturreko pobrezia1981eko % 50etik 2010eko %21era murriztu da, lehen mailako eskolaren amaitze-tasak 1990ko %81etik 2011eko %91era gehitu ziren, Gizateriaren ia %40 Internet bidez



**Berritu ekiteko**

Gizarteen beharrek bilakaera izaten dute eta enpresa horiei erantzun behar diegu,bestela merkatuz kanpo geratzen gara. Horregatik egon behar du presente berrikuntzak erakundeen ardatz nagusian, produktu eta zerbitzu balioetsiak merkatuan sortuko dituzten proiektu disruptiboetan inbertsioak eta aipaturiko proiektu horien lider izateko pertsona gaituen aldeko apustuak eginez.

**Patxi Etxebeste**

**Wattio**ko CEO-a

konektaturik dago, eta bizi-itxaropena gehitu egin da 10 urtean azken bi hamarkadetan gaur egun 70,5era iristeraino. MDF munduko ekonomia 3,7 bat haziko dela aurreikusten du 2014an zehar eta , seguru asko, % 3,9 2015ean. Mundu-mailako per capita diru-sarrera gehitzen ari da %2,6 urteko. Hitz batean, mundua hobeto doa eta hazkuntza positibo baina oso anitza proiektatzen da, Eurogunean batik bat, biziagoa erdigunean, eta ahula herrialde nabarmen zorpetuetan, eta horrek lastatu egingo du barne-eskaria. Hezkuntza desberdin horrek eragin argi eta garbia izango du etorkizuneko ongizate-ereduan.

## Berrikuntzak ez du generorik

Talentuak ez du generorik, eta gizarteak ezin du jarraitu biztanleriaren erdiaren talentua alferrik galtzen: emakumeak. Mundu-mailako Ekonomia Foroaren (WEF) arabera, herrialde arrakastatsuenak generoaren errenta-tarteari dagokionez (Islandia, Finlandia, Norvegia, Suedia) sozialki eta ekonomikoki ere lehiakorrenak dira. Horrek ideia bat indartzen du: negozio eta enpresetan generoaren berdintasuna inbertsio ona dela eta zentzua duela ikuspegi sozialetik ez ezik bai eta ekonomikotik ere. Berrikuntzaren jarduera kaltetua gertatzen da baldin eta emakumeak azpi-ordezkaturik badaude lan-munduan, eta bereziki, erabaki-organoetan. Emakumeen presentzia Europako aginte-organoetan %14koa da. Hori kontrastean dago unibertsitate-graduatuen %60 emakumeak izatearekin.

## Hazkuntza eta kapitala

Urrezko Aro berri batean bizi gara, baina oso berezi batean, zeren eta aberastasuna gehitzeak, gizarte osoari mesede egin beharrean, XIX. mendeko desberdintasunetarako izulera bat eragiten ari baita. Kapitalak erakartzeko nazioarteko lehiak gutxitu egin du zerga-presioa eta, aldi berean, hazkuntza-tasak dirudienez moteltzen ari dira, bai ekoizkortasun-tasatan eta bai termino demografikotan. Zenbat eta baxuagoa izan hazkuntza ekonomikoa, aurrezki-tasa berari, kapitalaren pisu handiagoa dagokio, dio Thomas Piketty irakasleak (Kapitala XXI. mendean liburuaren egilea).

## Langabezia: joera globala, zenbait salbuespenekin

“Lan-eskua” sobera dago baina enpleguak “ez dira estaltzen”: kontraesan horretan bizi gara. Krisiaren irismena eta hazkuntzadun baina enplegu gabeko krisia orbain sakonak uzten ari da, batez ere gazteen artean. Balioetsi da Europaren galera ekonomikoa gazteak lan-merkatutik at geratu direlako gutxienez 153.000 milioi eurora iristen dela. Kontua da langabezia eskala globalean hazten ari dela, 2013an 5 milioi gehitu zen eta 202 milioi pertsonengana iritsi zen mundu guztian. Beste 13 milioitan gehituko dela jotzen da 2018 arte. Eurogunerako aurreikuspenak 2014an berreskuratze ttiki bat izango dela diote; aldiz, Estatu Batuetan joera positiboa da.

## Suntsiera sortzailea

Mundua bere lanen automatizazioa abiadura esponentzialean gehitzen ari da eta Industria Iraultzakoan eta Informazio Aroko hasierako aldietan baino irismen handiagoarekin. Adibidez, dagoeneko iragarrita daude ibilgailu autogidatuak, urruneko arretadun sistema adimendunak, edo oinarrizko ospitale-arreta zerbitzuko robotikaren bitartez. Enplegatuen kopuruak, negozio-zifra berdin edo gehiagorekin, gutxituz jarraitzen du (EEBBetan langileei esleitzen zaien errentaren proportzioa bere maila baxuena lortu du 1950ko hamarkadatik), eta kalkuluen arabera 20 urteko epean gaurko enpleguen %47 automatizatua izan daiteke. Baina aldi berean espero izatekoa da behar berriek okupazio berriak sortzea, eta sortutako enplegua kualifikatua izatea, eta adimen sozial eta sortzailea eskatuko duten jardueratakoa. Historian zehar, lehen persona batek egiten zuen lana makina batek bere gain hartu duenean, bestalde, beharrezkoagoak bihurtu ditu giza gaitasun osagarriak.



**Berrikuntza euskal-industrian**

Berritzea ez da soilik erronka bat, baizik eta saihetsezinezkoa den lehiakortasun-baldintza euskal-industriarentzat. Zorrotza, aldakorra eta globala den lehiakortasunaren aurrean desberdintzeko ahalmena zehazten duen elementuetako bat da, horrenbestez ahalegin horretan eusteak oraina ziurtatzen du, baina, guztiaren gainetik, gure enpresen etorkizuna sendotzen du, haren pean dauden enplegua eta garapenarena bezala.

**Miguel Ángel Lujua**

**Confebask**eko presidentea eta **Innobasque**ko presidenteordea

## Gaitasuna gehitu egiten da
NDFak kalkulatzen du 2013an, eta lehen aldiz, goranzko ekonomiek lehen aldiz gainditu zituztela ekonomia aurreratuak, zeren eta mundu-ekoizpen guztizkoaren %50,41aren erantzule izan baitziren, erosmenaren parekotasunez doituta. Eta, NDFaren proiekzioen arabera, Txinak gainditu egin ditu Estatu Batuak aurten bertan.

## Gehiago eta bizkorrago berritu
Europar exekutibo seniorren %73k uste du beren enpresek astiroegi ari direla erantzuten merkatuaren erronkei eta azeleratu beharra dutela beren egokitze-prozesuak. Honako hau gomendatzen dute:

- Iragana ez dela itzuliko onartu eta aukeretan zentratzea.
- Identifikatu zer jarduera diren baztergarriak bertan behera uzteko, eta lastertasuna eta efizientzia areagotzeko.
- Enpresen beraien barrutik datozen ekimen berritzaileen implementazioa erraztu zalutasuna eta abiadura hobetzeko.

## Arrakasta-istorioak krisiaren probapean ezarrita daude
Krisia auzitan jartzen ari al da bigarren euskal eraldaketa handia? Hori da Alberto Alberdi euskal ekonomialariak egiten digun galdera. Datuek hor daude: langabezia, zor publiko eta pribatua, eta desberdintasuna gehitzea. Irtenbidea, haren iritziz, bigarren eraldaketa biribiltasunez burutzean datza berrikuntzatik. Berrikuntza-, sistema- eta sare-estadio batera jauzi (eskerga) egin beharra dago, zeinek bateratuko dituen interakzioak trinkotzearen abantailak nazioarteko sareetan parte-hartzearen abantailak, bai eta tokiko eragile eta instituzioekin ere, zeinak lehentasun estrategikoekin lerrokatuko diren, eta nazioarteko lehiakortasuna sostengatuko duten.

## Europar manufaktura
Aditu batek baino gehiagok dio baldin eta Euskadin zerbait ikasi badugu krisi honetatik honako hau dela: industria sendoa duten herrialdeek gutxiago sufritu dutela. Izan ere, krisiak ez du izan eragin bera industria guztietan. Teknologia garaiko manufakturak hobeki erresistitu dute, nahiz eta EBeko esparruan europar manufakturak bere BEG %15ean beheratu duen 2012an.

## Industrializazioa
Fabrikazio-kostuen ikuspegia (zeinen barruan baitaude materialak, pertsonak, fiskalitatea edo amortizazioa bezalako faktoreak, besteak beste) errotik aldatu da azken hamarkadan. Txina eta Estatu Batuak, hurrenkera horretan, eta %4ko diferentzial urri batekin, prezioan munduko lehiakorrenak bihurtu dira. Gure kontinenteko liderrak prezioan Erresuma Batua eta Holanda dira. Lehiakor izateko industria berritzaileagoa behar da, burokrazia gutxiago eta Europa gehiago.

## Espezializazio adimenduna eta berrikuntza
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluak (ZTBEK) argi berdea eman dio RIS 3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiako dokumentuari eta onartu egin ditu etorkizuneko ZTBP Euskadi 2020 oinarrizko lerro Estrategiko eta Ekonomikoak. Aldi berri bat hasten da honako xede honekin: oinarrizko ezagutza sortzearen eta ondasun eta zerbitzu bezala haren merkaturatzearen arteko tartea gainditzea, enpresei eta gizarteari ekarpen erreala gehitzearen helburuarekin Berrikuntzako Euskal Sistemaren ekoizkortasuna hobetzearen bitartez. Horretarako, baliabideak eta inbertsioak kontzentratu behar dira, lehentasunen hautespeneko prozesu bizi baten bitartez, eragile publiko eta pribatuen parte-hartzearekin. Prozesu horretan, europar metodologia jarraituz, Helize Laukoitzeko (ikerkuntza, enpresak, administrazio publikoa eta gizartea) eragileek parte hartuko dute.



**Langabezia eta gazteak**

Luis Cañada, Novia Salcedo-ko presidentea denaren "La densa niebla" olerkiak bikain jasotzen du gazte-langabeziaren inguruan dugun ideia:

"(...) Pegasus-etik ikusita, gazte-enpleguaren Gaiabisioak
ahalbidetzen digu esatea modu berberean:
politika eta enpresa eginda,
hezkuntza, lana, elkar-lana eta boterea ulertuz,
emakumea barneratuz,
emaitzak eta emotalentua partekatuz,
malgua izan eta konpromisoa hartuz...
ez dela inora iristen (...)

**Begoña Etxebarria**
**Novia Salcedo**ko zuzendaria eta **Innobasque**ko Batzorde Betearazleko kidea



## Helize Laukoitza [QH]
Aditu askok adierazten dute ekonomia modernoen hazkuntzak eragile ekonomiko guztien lankidetza behar duela, gizarte zibilarena barne. Gizartearen papera berrikuntzaren sortzailekide bezala oso garrantzitsua da: ikerkuntza, administrazioa edo enpresa bezalakoa. Haiek guztiek elkar hartuta etengabeko berrikuntzen bitartez sortzen den garapen ekonomiko eta sozialaren protagonista dira. ELGEk aitortu egin du Innobasque nazioarteko QH ereduaren erreferentzia bezala.

## Ahalduntzea eta aldaketa soziala
Berrikuntzak ahaldundu egiten du hura burutzen duena eta gertaleku duen komunitatea. Berrikuntza aldaketa sozialeko prozesu bezala lankidetzaren ahalmena gauzatzea da, gizarte hobe bat eraikitzeko sare heterogeneo batetik sortzen dena.

## Euskal berrikuntzaren bilakaera IUSaren bitartez
IUS (Innovación Berrikuntza Adierazleen Europar Panela) europar konparatiba bat da (UB-27) herrialdeen ekonomiek zer gaitasun duten eta berrikuntza-jarduerak zer mailatan dauden neurtzen duena. Lortutako puntuaketaren arabera, lau taldetan banatzen dira: liderrak berrikuntzan, berrikuntza garaiko herrialdeak, berrikuntza moderatukoak eta berrikuntza baxukoak. Grafikoan ageri denez, bilakaera positiboa da.

**Berrikuntza-adierazleen panelaren (IUS) bilakaera**




*Iturria: EUSTAT*

Joerak hazkuntza sostengatu bat erakusten du %3 baino handiagoa, EB-27aren batez bestekoaren %1,5en aurrean, tartea laburtu egiten da eta iraunkor badirau, bai EB-27ren aldetik eta bai Euskadiren aldetik, 2020an bat egingo dugu batez bestekoarekin. Nahikoa al da?



**Kooperatiba-ereduetan berrikuntza egin**

Berrikuntza kooperatiboa MONDRAGONen identitate-marketako bat da. Identitate hori MONDRAGONen Politika Sozioenpresarialaren arabera zehazten da, zeinaren 5 estrategia korporatiboen artean Berrikuntza eta Elkar-lankidetzarena barne hartzen diren.

Berrikuntzak baliabideak bideratzeko eta arriskuak hartzeko borondate argia eskatzen du, planifikazioa eta metodoa eskatzen duen onarpena. Horretarako, MONDRAGONek Berrikuntza – Sustapena – Ezagutza (M4FUTURE) sistema bateratua garatu du, prozesu hori formula gisa sistematizatzeko.

Bestalde, ziur gaude gure taldeen arteko enpresen elkar-lankidetza bai eta taldetik kanpo dauden gure inguruko enpresena ere bai, nabaria den klabea izango dela berrikuntza optimizatzeko eta gure enpresa-jardueren lehiakortasuna sendotzeko.

**Javier Sotil**
**Mondragon Korporazioa**ren Industria Saileko presidenteordea eta **Innobasque**ko presidenteordea

# Aginte Organoak

## Zuzendaritza Batzordeko kideak (2014ko urtarrila)



Presidentea
**Alberto García Erauzkin**
EUSKALTEL

Presidenteordea
Javier Ormazabal Echevarria
FUNDACIÓN TECNALIA

Presidenteordea
Arantza Tapia Otaegi
EUSKO JAURLARITZA – EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

Presidenteordea
Jesús María Iriondo Arrizabalaga
IK4 RESEARCH ALLIANCE

Presidenteordea
Fernando Cossio Mora
IKERBASQUE

Presidenteordea
Javier Sotil Arriaran
MONDRAGON CORPORACIÓN

Presidenteordea
Miguel Ángel Lujua Murga
CONFEBASK

Diruzaina
Xabier Gotzon Iturbe Otaegui
KUTXABANK

Diruzaina
Olatz Fernández Elejalde
URÍA Y MENÉNDEZ

### Batzordekideak

Iñaki López Gandásegui
AERNNOVA AEROSPACE

José Zurita Laguna
ARABAKO FORU ALDUNDIA

Luis Vega González
BASQUE CENTER FOR APPLIED MATHEMATICS

María Aguirre Rueda
BIOEF

Eduardo Anitua Aldecoa
BIOTECHNOLOGY INSTITUTE

Imanol Pradales Gil
BIZKAIAKO FORU ALDUNDIA

Eduardo Etxeberria Arratibel
CAF

Txomin García Hernández
CAJA LABORAL - IPARKUTXA

José María Mato de la Paz
CIC bioGUNE

José María Pitarke de la Torre
CIC nanoGUNE

Aurkene Alzua Sorzabal
CIC TOURGUNE

Unai Sordo Calvo
CONFEDERACIÓN SINDICAL DE CC.OO. DE EUSKADI

José María Guibert Ucín
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Jon Azua Mendia
E-NOVATING LAB

Pilar Urruticoechea Uriarte
ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EVE)

Carlos Alcalde Mesanza
EROSKI

María Agirre Rueda
ETORBIZI

Ibone Bengoetxea Otaolea
EUDEL

Iñaki Goirizelaia Ordorika
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Josetxo Hernández Duñabeitia
EUSKALIT

Jose Ángel Corres
EUSKO GANBERAK

Iñaki Dorronsoro Plazaola
EUSKO IKASKUNTZA

Juan María Aburto Rike
EUSKO JAURLARITZA - ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Cristina Uriarte Toledo
EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Ana Isabel Oregi Bastarrika
GEUSKO JAURLARITZA - INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

Jesús Peña Martínez
EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA

Jon Darpón Sierra
EUSKO JAURLARITZA - OSASUN SAILA

David José Mesonero Molina
GAMESA

Juan Mari Uzkudun Guruzeaga
GIPUZKOA BERRITZEN

Martín Garitano Larrañaga
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Mikel Barandiarán Landin
GLOBAL DOMINION ACCESS

Asís Canales Abaitua
IBERDROLA

Fernando Querejeta
IDOM INGENIERIA Y CONSULTORÍA

José Luis Larrea Jiménez de Vicuña
INSTITUTO IBERMÁTICA DE INNOVACIÓN-I3B

Ricardo Martí Fluxá
ITP

José Mª Franco Barroso
LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA

Ignacio María Echeberria Monteberria
LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA - ORKESTRA

Begoña Etxebarria Madariaga
NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA

José Ignacio Arrieta Heras
MBN COMUNICACIÓN

Iosu Zabala Iturralde
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Azucena Castro Espido
OWL

Josu Jon Imaz San Miguel
PETRONOR

Jorge Unda Malcorra
SENER INGENIERIA Y SISTEMAS

Alexander Arriola Lizarriturri
SPRI

Matilde Elexpuru Soloaga
TISA CONGRESOS

Emilia Málaga Pérez
UGT

Alejandro Echevarría
BUSQUET

Javier Retegui Ayastuy
Luis Cañada Vicinay
Rafael Barrenechea Ucín

### Ohorezko bazkideak

Pedro Luis Uriarte Santamarina

Guillermo Ulacia Arnáiz



## INNOBASQUEREN GOBERNANTZA-EREDUA




### Zuzendaritza Batzordeko bestelako kideak 2012-13

María Luisa Guibert
ALGEPOSA GRUPO

Luis Viana Apraiz
ARABAKO FORU ALDUNDIA

Enrique Zuazua
BASQUE CENTER FOR APPLIED MATHEMATICS

Carmen Garaizar
BIOEF

José Luis Bilbao
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Andrés Arizkorreta García
CAF

Juan Tomás Hernani Burzaco
CONSORCIO ESS BILBAO

Jaime Oraá
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Pedro Miguel Echenique Landiribar
DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER

María Silvestre Cabrera
EMAKUNDE – EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

José Ignacio Hormaetxe
ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EVE)

Fco. José Etxaniz Beaskoetxea
EROSKI

Fernando Fantova
ETORBIZI

Pello Salaburu
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ignacio Lekunberri
EUSKALIT

José Mª Muñoa Ganuza
EUSKO IKASKUNTZA

Bernabé Unda Barturen
EUSKO JAURLARITZA – EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

Gemma Zabaleta
EUSKO JAURLARITZA – ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Isabel Celaá Diéguez
EUSKO JAURLARITZA – ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

José Luis Anda Fernández
EUSKO JAURLARITZA – INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

Pilar Unzalu
EUSKO JAURLARITZA – INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

José Manuel Salinero Feijoo
EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA

Rafael Bengoa
EUSKO JAURLARITZA -OSASUN SAILA

Gregorio Rojo
EUSKO GANBERAK

Pedro Esnaola Latasa
EUSKO GANBERAK

Alejandro Otaegui Furriel
GAMESA

Alicia Vivanco González
KUTXABANK

Carlos Zapatero
KUTXABANK

Mario Fernández Pelaz
KUTXABANK

Xabier de Irala
KUTXABANK

José Mª Aldecoa Sagastasoloa
MONDRAGON CORPORACIÓN

Txema Gisasola
MONDRAGON CORPORACIÓN

Mikel Urizarbarrena Aguirre
PANDA SOFTWARE

Jorge Sendagorta Gomendio
SENER INGENIERIA Y SISTEMAS

Tomás Orbea Celaya
SPRI

José Manuel Goikoetxea Askorbe
TECNOLOGÍA Y CALIDAD LACTEA

Álvaro Videgain Muro
TUBACEX

Aingeru Aizpurua Korta
TS FUNDICIONES

José Ramón Berecibar
URÍA Y MENÉNDEZ

Pablo Garrote
URÍA Y MENÉNDEZ

# Bi urte hauetan

## II. Innobasque Zikloa (2012-2015): "Mobilizaziotik ekintzara"

2011an, Innobasqueren Zuzendaritza Batzordearen barruan egindako gogoeta prozesu baten ondoren, 2012an Estrategia Batzordea sortzen da. Horren helburua, Innobasquek 2012-2015 zikloan **heldu beharreko erronkak identifikatzea** eta lehentasunak zehaztea izango da

**José Ignacio Arrieta,** José María Aldecoa, Alejandro Echevarría, Ignacio López Gandásegui, Josu Jon Imaz eta José Luis Larreak osatutako Batzordeak, honakoa ondorioztatzen du:

- Beharrezkoa dela, **Lehendakariaren lidergoarekin, Innobasque proiektua sendotu eta garatzeko ziklo berri bat hastea**
- Hiru **lan-prozesu** definitzen dira: **Sozializazioa, Dinamizazioa** eta **Berrikuntzaren Euskal Sistemaren estrategiari laguntza ematea**.



Innobasqueko Memoria 2010-2011

**Zein izan da Zuzendaritza batzordearen rola Innobasqueren II. Zikloan**

Ziurrena iritzi publikoak ezagutzen duela eta, esatera ausartuko nintzateke, II.a baino, I. Zikloa askoz gehiago baloratzen duela.
Eta nolabait logikoa eta azalgarria da.

Innobasqueren bat-bateko sartze berritzailea, haren zabaltzea eta Politika, Sozial, Kultura, Hezkuntza, Enpresa, arloetako eragileen gehiengo hain handiaren aldetik jasotako erantzun positiboek soberan justifikatzen dute. gizartearen errekonozimendu positiboa.

Ordea I. Ziklotik metatutako esperientziak Innobasqueren berdefinizioa eskatzen zuen eta, oso era espezifikoan, egokitzapena erakunde gisa.
Gogoeta eta ikerketa lana, proiekzio publikoa duena baino.

Baina, beharrezkoa bakarrik ez, Innobasque Proiektua behin betiko sendotzeko, ezinbestekoa baizik.

Hori da, nire iritzia, Innobasque osatzen zuten estamentu guztiek hartu zuten ardura, arrakastaz, gogoz eta erabateko dedikazioz.
Arrakasta eta, ondorioz, proiektuaren behin betiko egonkortzea, Lehendakariaren Innobasqueren Ohorezko Presidentziaren onarpenarekin burutzen da, hori da Innobasque-ren arduradunon ekarpen handia.
Azken finean, haren Zuzendaritza Batzordea osatzeko izan dugunon eta izan zutenen ohorea.

**José Ignacio Arrieta**
**MBN Comunicacion**eko presidentea eta **Innobasque**ko Batzorde Betearazlearen kidea



## Bazkideen Batzar Nagusia 2012 (maiatzak 22)



**Zuzendaritza Batzordearen berritzea,** 60 kidez osatua (%50 gizarte- eta enpresa-alorra, %25 zientzia eta teknologia eta %25 administrazioa). Kargu osaketa berria adosten da, 5 presidenteorde berriz osatua honako alorretan: Euskadiko administrazio publikoa, enpresa-erakundeak, ikerkuntza-erakundeak, teknologia korporazioak eta gizarte-ekonomia ingurua.

**Batzorde betearazlearen eraketa,** presidenteak, diruzainak eta 5 presidenteordeek osatzen dutena, bai eta 9 pertsona nabarmen ere lehentasunez jardutekoak diren alorretan.

**Innobasque-ko Ohorezko Presidentziaren onarpena** Patxi López **Lehendakariaren aldetik**

## Zuzendaritza Kontseiluak

2012ko 2. seihilabetean, Innobasqueko Batzorde Betearazleak, 3 **Zuzendaritza Kontseilu** abian jartzea onartzen du 2013an zehar:



**Ekoberrikuntza Kontseilua, Asís Canales**-ek (Iberdrola) lideratutakoa



**Gizarte Efiosasuntsua Kontseilua, Azucena Castro**k lideratutakoa.



**4. Sektorearen Kontseilua, Txema Franco**k (Lantegi Batuak) lideratua

## Iñigo Urkullu Lehendakaria, Innobasqueko Ohorezko Presidentea



2013ko lehen seihilabetean, Innobasqueren Batzorde Exekutiboko ordezkariek, Txema Villaterekin batera, topaketa bat izan zuten Ajuria Enean Iñigo Urkullurekin, **Innobasque proiektuan** haren lidergotzaren garrantzia azaltzeko. **Lehendakariak Ohorezko Presidentzia onartu** eta Agentziak berrikuntzarekin duen konpromisoaren ordezkatzea babestu zuen.

## Bazkideen Batzar Nagusia 2013 (maiatzak 14)



**Innobasqueko presidentziaren ordezkatze prozesua hasten da,** irailaren 30ean burutzen dena **Alberto García Erauzkin-ek presidentzia hartzean,** Guillermo Ulacia kargutik ordezkatuz.



1. Seihileko **txostena 2012**



2. Seihileko **txostena 2012**



1. Seihileko **txostena 2013**



2. Seihileko **txostena 2013**

**Innobasquek honako administrazio kontseilu eta zuzendaritza organoetan parte-hartzen du** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK); The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL); The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM); Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council, Gipuzkoa Berritzen, Euskalit, Ikerbasque; Orkestra (Lehiakortasunerako Euskal Institutua); Loiola Media Berrikuntza Fundazioa; Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioa; LeiBerri Gipuzkoa 2020; Tecnaliako Berrikuntza eta Gizarte Dibisioa, IK4 Research Alliance-eko Estrategia Batzordea; Langune, Ikusmer, i20 (ILSI, Institute for Large Scale Innovation, San Francisco), Social Innovation Exchange (SIX) eta Transatlantic Cities Network (TCN).

# Unibertsitatea,
## ikerkuntza eta berrikuntza



### Berrikuntzarako ikerkuntza

Produktu berriak sortu, dagoeneko ditugunak hobetu, geure ekoizpen-gaitasuna optimizatu, nazioarteko merkatuan salmentak gehitu, erakargarriagoak izan, kostuak murriztu... horixe bezain erraza, horixe bezain zaila. Horren bila dabiltza gure enpresa guztiak.

Duela zenbait urte jarduera horri **berrikuntza** deitzea erabaki genuen, bestalde **euskal enpresa askoren ezaugarria da**. Baina hain zuzen ere gure edozein lantegitan urte askotan egiten ari direna da, berrikuntzarenganako debozioa agertu baino lehen.

Egia da bizi garen egoera globalak merkatuan egoteko era berriak eskatzen dituela, egokitze teknologiko askoz lasterrago bat eta gure produktuen eta ekoizpen-prozesuen eguneratze askoz zorrotzagoa. Baina helburu horiek lortzeko, berrikuntza deitzen zaiola edo beste edonola, izena da gutxienekoa, bada **osagai beharrezko eta oinarrizko bat: ezagutza**. Gainerakoa hartatik dator edo bilgarria da.

Berrikuntzarako gogoeta egiteko eskatzen didate. Jarrera kritikoa dut kontzeptu horren erabilera gehiegizkoarekiko eta "berrikuntzarengatiko berrikuntzara" bideratutako baliabide ugari erabiltzearekiko. Batzuetan badut sentsazioa irtenbide bat sortu dugula eta orain arazoa aurkitu beharrean gaudela.

Nire iritziz, **bide bakarra dago: ezagutza sortu eta transmititu**. Ezagutza da edozein barrutitan aurrera egitea ahalbidetzen duena. Pertsonak prestatzea etorkizun-bermea da. Ezagutzarik gabe ezinezkoa da prestakuntza. Ezagutzarik gabe ez dago teknologia garatzeko inolako modurik. Ezagutzarik gabe ez dago produktuetan edo ekoizpen-prozesuetan berrikuntza egiterik. Ezagutza da gizarte-ongizatearen abiapuntua. Hitz batean, **ez dago berrikuntzarik ezagutzarik gabe.**

Egin dezagun gauza sinple bat: **ezagutza sortzen duen ikerkuntzaren aldeko apustua**, baina aldi berean **espezializazioa** eta **agregazioaren alde apustu eginez**, zeren ez baikaitezke izan bikaina guztian. Ez gaitezen kezkatu hainbeste egin behar dugun ikerkuntza-motaz: oinarrizkoa, aplikatua, enpresaren beharretara bideratua, **berrikuntzarako ikerkuntza...Ikerkuntza ona egin dezagun besterik gabe**. Horretarako gutxienez bi gauza behar ditugu: pertsonal ikertzaile ona, -ikertzen ari dela esaten duen guztia ez da aritzen horretan-, eta **apustu iraunkor bat denboran ikerkuntzaren eta hura ahalbidetzen duten pertsonen alde**. Ondorioa: egin dezagun ikerkuntza onaz lanbide duin, desiratu eta errespetatua.



Iñaki Goirizelaia
**UPV/EHU**ko erretektorea

### Unibertsitate integrala: Social Engagement

**Unibertsitatea** existitzen diren instituzio antzinakoenetako bat da. Lehen mendeetan zehar, haren **eginkizun nagusia irakaskuntza ea ikaskuntza izan** zen. Gune presentzial edo fisiko bat da, eta bertan ikaslea eta haren heltze- eta sozializatze-prozesua dira erdigunea.

Joan den mendean unibertsitatearen (bigarren) eginkizun berri bat nabarmendu zen: **ikerkuntza eta ezagutza sortzea**. Zientzia desberdinetan izandako aurrerapenek eraldatu egin dituzte gure gizarteak eta kultura eta balore berriak sortu dituzte.

Joan den mende beraren amaieran, unibertsitatearen (hirugarren) eginkizun berri bat hasi zen nabarmentzen: proiekzio soziala, hedapen unibertsitarioa edo ingurunearekiko harremana, **social engagement** deitua.

**Hiri edo erregio bateko gizarte-bizitzan unibertsitatearen presentzia hazi egin zen eta markatu egin zuen onerako hiriguneen garapena**. Unibertsitate konkretua social engagement da jarduera askoren bitartez: hitzaldiak, gertaldien antolaera, dibulgazioko jardunaldi teknikoak, tokiko instituzioekiko ikerkuntza adostuak, aholkularitza-lanak, transferentzia, boluntariotza eta errebindikazio sozialak, kontzertuak, feriak eta foroak, life long learning eta prestakuntza etengabe edo iraunkorra, etab.

**Smart cityak smartago dira baldin eta unibertsitate batetik jarduera adimendunak bultzatzen badira, kultura, zientzia eta berrikuntza sustatuz**. Munduko bederatzi erregio garatuenek erdian unibertsitate bat dute. Nahiz eta unibertsitateak ez izan prestakuntzaren eta ikerkuntzaren esklusiba, unibertsitateetako departamentuak eta zentroak nodoak dira eta gure gizartearen atal garrantzitsuak, gero eta gehiago, sarean eta konexiopean.



José M. Guibert
**Deustuko Unibertsitate**ko
erretektorea

### Transferentziaren unibertsitatea

MU ibilbidea eta etorkizun-ikuspegia herrialde honetako beharrei buruz ezagutzaren gizartearen garapenerantz bideraturiko eredu batean oinarritzen dira argi eta garbi eta, aldi berean, **ezargarritasuneko konpromiso saihestezin** batean sortutako ezagutza horren enpresetan eta erakundeetan.

Gaurko gure ekoizpen-egituraren egoerak, krisiak hain agerian jarri dituen mugakizunek eskatu, galdatu egiten digute, **baterako ahalegin osagarri bat** unibertsitateen eta ekoizpen-sistemaren artean, sistema ekonomiko eta industrial intentsibo baten garapenaren zerbitzuan ezagutzan eta balio erantsi handikoan.

Horri dagokionez MUren jarrera oso argia da. Gizarteari eta enpresa- eta erakunde-munduari hertsiki lotutako unibertsitatea gara, izan ere berari zor gatzaizkio eta **transferentzian bikainak izateko gogoa dugu beti**.

Baina ezinezkoa da norberak ez duenik transferitzea. Eta norberak duen horrek gai izan behar du erakarmen asmozko bat sortzeko, aski energia katalizatzen gai izango dena **berrikuntza disruptiboko bidezigorretik enpresak eta erakundeak adoretu eta bideratzeko**, aldi berean, enpresen eta unibertsitatearen artean, berrelikatzen duen adorezko eta konfiantzazko egoera bat sortuz.

MUren helburua honetan datza hain zuzen ere: **aurreikusten, askotan apustua egiten, enpresa-ehunak etorkizun gutxi-asko hurbilean eskatuko dituen teknologia edo ikerkuntza-lerroen alde**. Zientzia-ikerkuntzako proiektu bideratuen bitartez gauzatzen dugun eskakizun bat da, ezagutzen diferentziak egokia sortuz eta/edo atzemanez.

Kokapen horrek oinarrizko ikerkuntzako xedeak askoz hobeto zehaztu eta fintzea ahalbidetzen digu, alde batetik, eta bestetik, **beharrei erantzun efiziente eta eraginkorrago bat eskaintzea** enpresen eta erakundeen epe labur, ertain eta luzean, haiek eskatzen dutenean.

Prestutasun irekia,lankidetzarako eta laguntzarako jarrera, **funtsezkoak dira harreman egonkor eta sendotuak ernaltzeko**.



Iosu Zabala
**Mondragon Unibertsitate**ko
erretektorea

# Innobasque Proiektuak

*Nazioarteko erreferentzia daten aditu eta erakundeek honako hau adierazten dute: **hazkuntza-eredu berriak garatu beharra dagoela sinergietan oinarrituak** lurraldeko aktoreen artean, berrikuntza-ekosistemak faboratuz honako hauek ahalbidetuko dituztenak:*

- Ekonomia berraktiba-tzea
- Enplegua sortzea
- Baliabide publikoak arraziona-lizatzea
- Gizartea eraldatzea

## BERRIKUNTZA SISTEMA

Herrialde aurreratuetan, berrikuntza da gehien laguntzen duen faktorea, nola giza garapen jasangarrian, hala ekoizkortasunaren hazkundean.

Horretarako, beharrezkoa da inbertsioak neurtzea berrikuntzan, haien hazkundearekiko eragina harremanean jartzea eta sistemaren beraren baldintza orokorrak ebaluatzea.

Innobasque Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoaren egitekoa burutzen ari da

Negozio globaleko aukera berriak baliatzea enplegua eta aberastasuna sortzeko.

## GIZARTE ETA EKONOMIA DINAMIZAZIOA

Gaitasunak konektatzea, eragin handiko proiektuak bilatuz eta haien burutzeko beharrezko inbertsioak trakzionatuz.

### 01 Eko-berrikuntza

Berrikuntza egin baliabide natural urriak erabiltzen eraginkorragoak izateko: energia, ura, airea, mineralak, baita hondakinak ere.

### 02 Gizarte Efiosasungarria eta bizi-kalitatea

Osasunari era berritzailean ekin haren potentziala ezin gehiagoraino baliatzeko lehiakortasun-iturri bezala Euskadin, zehazki gehiago eta hobeto bizi izateko, ingurunean balio ekonomikoa sortzeko eta osasun-sistemaren jasangarritasunari ekarpena egiteko.

### 03 Laugarren Sektorea

berrikuntza soziala trakzionatzea enpresak, enplegua eta aberastasuna sortzeko gure gaurko eredu ekonomikoaren zentzu eraldatzaile batekin.

### 04 Enpresen Azelerazioa

enpresak identifikatu eta laguntzea, izan ere merkatuan izandako esperientziaren ondoren, azeleratuak izan daitezke eragin handiko enpresa bihurtzeko (EHE), hazkunde berritzaileko ereduak sortzeko haien gaitasuna hobetuz.

## SOZIALIZAZIOA

Gizartea blai egin eta eraldatzea berrikuntzaren balioak eta kultura mobilizatzeko helburuarekin, praktika hoberenetatik ikasiz eta geure burua kanporantz proiektatuz.

- Gazteak
- Bazkideak
- Gizartea
- ZTBES



# Sendotzea eta haztea



Txema Villate

**Innobasque**ko zuzendari nagusia

Urtero, Innobasqueren Memoriak aukera ematen dit une batez gelditzeko, gogoeta egin eta denboraldi honetan gertatutakoaren balantze bat egiteko. Denbora arin doa, aldaketak aterrunerik gabe gertatzen dira eta beti ez gara jabetzen lortutakoaz, egindako bideaz. Oinarrizkoa berretsi egiten dut: **Innobasque denon artean eraikitzen ari garen herrialde-proiektu bat da. Eta inoiz baino beharrezkoagoa da, azeleratu beharra baitugu**. Berrikuntza-erak aldatzen ari dira, merkatu globalean bakarrik ez dugu lehiatu behar, baizik eta etxekoan ere "lehian" gaude, lehiakideak arinago doaz eta ezin dugu onartu atzean geratzearen luxurik. **Geure ongizateari eutsi nahi diogu eta horretarako, eskura ditugun baliabide guztiaz erabili behar ditugu. Zalantzarik ez, berrikuntza ahaltsuenetako bat.**

**2012k inauguratu zuen Innobasqueren sendotze eta haztearen bigarren zikloa. Ia ehunen bat pertsonari eskertu nahi diet beren eskuzabaltasuna** gure aginte-organoetan interesgabeki partu hartu dutelako eta Innobasque proiektuaren helmena balioan jartzea. Halaber, nabarmendu egin nahi dut **Batzorde Exekutiboak** denboraldi honetan lortu duen garrantzia, nondik pasatu baitira, eta nongoak baitira lehen mailako pertsonak, Innobasquek ordezkatzen duenarekin konprometituak eta haren gobernuan parte-hartze irmoa dutenak. Batzordeak arindu egin du erabakiak hartzea eta ebaluatu egin ditu Zuzendaritza Kontseiluen proposamenak, haiek ere duela bi urte sortuak aukerak detektatzeko.

Denboraldi horretan **lan egin dugu euskal berrikuntzaren ekosistema sendotzeko,** ingurune horretan eragile desberdinek elkar-eraginean aritu dira, eta emaitza kutsagarriak eta gizartea eraldatzen dituztenak sortu dituzte haien ondorio biderkatzaileei esker. **Helize laukoitzaren ereduaren bitartez egin dugu hori,** zeinean bat egiten baitute eragile zientifikoek eta teknologikoek, enpresek, administrazioak eta gizarteak.

Helburu horri erantzuna emanez, biurteko honetan Innobasquek bilakaera izan du bere barne-antolaketan hiru lerro nagusiren inguruan: **Berrikuntzako Euskal Sistemaren idazkaritza teknikoa; sozializazioa eta berrikuntzako kultura bat sortzea hori eraldaketa-eragile bat izan dadin**; eta **dinamizazio sozio-ekonomikoa,** ekonomiaren berraktibazioa bultzatzen duten funtsezko ekimenak laguntzearen bitartez, hala nola Eko-berrikuntza, Gizarte Efiosasungarria, Laugarren Sektorea eta Enpresen Azelerazioa.

Bide horretan zehar **Guillermo Ulacia**k lagundu gaitu, 2009tik presidentziaren jabe egin baitzen, Innobasqueren lehen etapa bukatu eta bigarrena, hazi eta sendotzearena prestatu zuen. **Alberto García Erauzki**nek duela orain urtebete Innobasque mila eta gehiago bazkiderekin gidatzearen erantzukizuna hartu zuen bere gain, hirugarren etapara, helmuga berrietarantz. Eta zuk, laguntzen al gaituzu? Bat egiten al duzu gurekin?

# BERRIKUNTZA SISTEMA

"Ez dugu ezagutzen geure egiazko garaiera harik eta zutik jarri arte"

EMILY DICKINSON

## 01 Ebaluazioa eta monitorizazioa

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa gara

**Lankide gara** "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen Berrantolaketa: azpisistema teknologikoa" **proiektuan**

**Nazioarteko praktika onenak identifikatu eta analizatzen ditugu** Euskadin berrikuntza-politikak formulatu, monitorizatu eta ebaluatzeko.

Berrikuntza-eragina neurtuz:
**INDIZEA**
Berrikuntzako Euskal Indizea

Erregio-gizarteko berrikuntzaren ebaluazio-eredu bat sortuz:
**RESINDEX**
Regional Social Innovation Index

Berrikuntza soziala bulkada eman

Laguntza eman Euskadin berrikuntzaren bilakaeraren monitorizazio, ebaluazio eta analisiari.

## 02 Euskal I+G+b-aren nazioartekotzea

**I+G+b Europar Programetan euskal parte-hartzearen Behatokia (7EP)**

Itxi egin ditugu euskal erakundeen partaidetza-datuak **7ºEuropar Esparru Programan** (2007-2013) eta "Koaderno estrategiko " lantzen ari gara euskal eragileen partaidetza-helburuak definitu eta zehazteko Horizon2020 (2014-2020).

**I+G finantzazio-programen nazioartekotzea (Gaitek)**
**ERA-NET ekimenen bitartez**

**Euskal eragileen partaidetzaren sustapena I+G+b-eko europar programetan eta teknologia-transferentzian**

Enterprise Europe Nework Sareko euskal nodoaren parte gara (Basque EEN), zeinek eskaintzen baititu zerbitzuak I+G+b-ko europar proiektuetan parte hartzeko.

Jarduketak sustatzen ditugu hiritarrek partaidetza-prozesuetan txerta daitezen, zeinek ahalbidetuko duten erronkak eta behar sozialak ebazten.

**Partaidetza-prozesuak bideratzen ditugu berrikuntzako politika publikoetan**

**Basque Social Innovation**

## 03 Berrikuntza Soziala





# Berrikuntzaren ebaluazioa eta monitorizazioa

Euskadiko berrikuntzaren ebaluazio-ekimenaren esparruan honako hauek aurkeztu ditugu:

**Indizea, Berrikuntzako euskal indizea**
(2013ko maiatzak 14)



Enpresek kapital ukiezinean zenbat inbertitzen duten neurtzen du (I+G+b) eta zein den inbertsio horren ekarpena ekoizkortasuna hobetzeko.

Indizeak hedatu egin du berrikuntza kontzeptua I+G-az harago, orain arte ezkutuan egon den berrikuntza bat azaleratze ahalbidetuz eta haren eragina neurtuz hazkuntza ekonomikoan.

Indize horrek berrikuntza erregionalaren ebaluazioko eredu aurreratu bezala kokatzen du eta estrategikoki kokatzen du nazioarte-mailan, zeren eta erregio aitzindaria baita aktibo ukiezinak neurtzen hazkuntza-iturri bezala, ELGEren gaurko ekimen batekin lerrokaturik.

**Zergatik da garrantzitsua berrikuntza ebaluatzea**

Gaur egun, nazio, eskualde eta hiri guztiek nahi dute berrikuntza bizkortu. Gero eta gehiago dira dauzkagun frogak hori dela produktibitatearentzat giltzarria den alorra, lanpostu berrietarako bai eta oparotasunerako ere. Baina aldi berean erronka handiak planteatzen ditu: nola iraun berrikuntzarako lanabes berrien lehen lerroan, azeleragailu eta sarietatik datu erraldoien erabilerara; eta nola neurtu eragina (eta zalantzatik egon ez dadila erabilitako diruak produktu eta zerbitzu berrien eremuetan gehiena lortzen ari duela). Euskal Herriak leku nabarmena dauka esperimentatzeko eta bi aldeetan zuzendaritzan aritzeko. Denok itxaroten ditugu emaitzak interesarekin.

**Geoff Mulgan**
**NESTA**ko zuzendari exekutiboa





Indizea, Berrikuntzako euskal indizea

**Zergatik da garrantzitsua berrikuntza ebaluatzea**

Ba al dago berrikuntza bereiztea haren gizarte, teknologia eta ekonomia eraginetatik? Ez al dira haren eraginak eta ondorioak hain zuzen ere ekintza berritzaileei nabarmentasuna ematen diotena? Benetan posible al dugu alde batera uztea jarduera berritzailea hautemangarriak eta neurgarriak diren ebidentziatan eraldatzen dituen adierazle-sistemak? Ezin dugu, ezta egin behar ere. Sistematikoki ebaluatze sistemak aplikatzea, berrikuntza sistema egonkorrak sortzeko aukera-baldintza da.

**Alfonso Unceta**
**Sinnergiak Social Innovation**
(UPV-EHU)-ko zuzendaria



**Resindex, (Berrikuntza Sozialeko Erregio Indizea)**
(2013ko ekainak 28)



Proiektu aitzindaria da berrikuntza soziala neurtzen erregio-mailan, neurketa-eredu propio batekin beste herrialde batzuetara esportagarria izan daitekeena.

Resindex eredua EHAEko 282 eragileri ezarri zaie (enpresak, teknologia-zentroak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta unibertsitateak). Zenbait ondorio:

- Euskal erakundeek gaitasun handiak dituzte berrikuntza soziala garatzeko eta erakunde horietako askok norabide argia dute soziala denarekin konprometitutako jardueretarantz
- Gaitasunen norabidetze hobeak berrikuntza sozialeko maila hobe eta handiagoak sustatuko ditu.



Resindex, (gizarte berrikuntza herrialde-indizea)

**Berrikuntza eta bere emaitzak neurtu**

Berrikuntza herrialde aurreratuen hazkunde ekonomikoaren motorra da, horregatik beharrezkoak dira eskainitako baliabideak eta eskuratutako emaitzak ezagutzea. Berrikuntzaren konparaketa-eredua erreferentziazko ekonomiek gastatzen eta lortzen dutena da. Horrekin posiblea da herrialde baten prozesu berritzailearen kalitatea ebaluatzea.

**Juan Mulet Meliá**
**Cotec**-en zuzendari nagusia






**Arantza Tapia**
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua

**Innobasque**ko presidenteordea

## Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen berrantolakuntza: Teknologia Azpisistema

# Zergatik eta zertarako?

Azken hamarkadetan Euskadik ahalegin handia egin du lehiakorra den politika zientifiko-teknologikoa garatzeko. 80 eta 90eko hamarkadetan oinarrizkoak diren ahalmenen sorreratik abiatuta, zientzia eta teknologia eskaintzei laguntza emateko PUSH motako politikak, ehun-produktibo eta -sozialaren eskariaren ikerkuntza bermatzera bideratutako PULL izaerakoekin ordeztuz joan dira.

XXI. mendea **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sare zabal batekin hasi dugu, nazioarte mailan errespetatua eta onestua dena**. Ordea, bertan gauden eragile eta erakunde arduradunok partekatzen dugu B+G+b-ean egindako inbertsio ahalegin publiko-pribatuak handitu egin behar duela herrialdearen produkzio ekonomia eta garapen ekonomiko eta sozialari egindako ekarpena.

Orain arte egindakoa, ondo dago, baina Eusko Jaurlaritzatik hobekuntza puntuak badauzkagu identifikatuak.

Lehenik eta behin, eta Europar Batasunean B+G-aren diagnosi orokorrarekin bat eginez, ez da lortu eragile zientifiko-teknologikoek duten ahalmen guztia Industriara transferitzea. **Euskadin, beharrezkoa da Teknologia Azpisistemak garapen ekonomikoarekin lotutako jarduera sendotzea** (merkatutik hurbilen dagoen B+G) lehiakorrenak diren herrialdeen pare kokatzeko eta gainera eransgarritasuna hobetzeko (inbertitutako euro publiko bakoitzagatik finantzaketa pribatua erakartzeko ahalmen gisa ulertua). Horrek **mesedetuko du berrikuntzan oinarritutako hazkuntza jasangarriaren bideari ekitea EAEn.**

Bigarren, eta geure dimentsio txikia dela eta, **beharrezkoa dugu ZTBES-ren jarduera kontzentratzea** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Kontseiluak berak berriki onartutako espezializazio eremuetan. Herrialde gisa itzulera gehien jaso dezakegun eremuetan zenbat eta baliabide gehiago kontzentratu, ahaleginen eraginkortasuna beti handiagoa izango da.

Azkenik, **bikaintasuna hobetzea lortu behar dugu**, hori ulertua B+G jardueraren azken emaitzei eragile bakoitzak egiten duen ekarpena, hala nola argitalpenak, patenteak, teknologia-oinarria duten enpresa berriak eta produktu eta prozesu berriak.

Hiru alor horiek eratzen dute berrantolakuntzaren oinarria, lankidetzazko eredu baten pean garatzen dena eta eragile desberdinen arteko elkarrekintza bilatzen duena, eta baita ere horien eta ingurune globalaren artekoa.

Lan hau, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak lideratua izan dena, SPRI-ren laguntza eta Innobasque Idazkaritza Tekniko gisa izan ditu, bai eta inplikatutako eragileen parte-hartzea ere.

Lanaren emaitza nagusiak, eragileen **mapa berri batean eta agintaritza-koadro bat**ean zehazten dira, nazioartekoak diren erreferentzien arabera sortua dena eta aurrerakuntzak neurtu eta monitorizatu ahal izateko erabiliko dira.

Horren ezarpenak Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Kontseilariordetzaren B+G+b-ri egindako laguntza programa publikoen berrikuspena eta egokitzapena eskatuko du, 2015 eta 2020 bitartean estrategia horretarantz zuzendua izango dena. Gainera, ZTBES-aren eragileen erregistro berri baten eraketa bai eta horren erregulazioaren Dekretu baten onarpena eskatuko du ere.





# Nazioartekoa

## ERA-NET ekimenen bitartez (Gaitek) B+G finantzaketa programen nazioartekotzea

ERA-NET: **ERNEST, ETB- PRO, LEAD-ERA, MANUNETII, M-ERA. NET** eta **ENTIII** proiektuetan Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailen parte hartzearen koordinatze, zabaltze eta kudeaketa.



99 euskal enpresa ERA-NET proiektuetan parte hartzen

Euskal inbertsioan B+G-ean 11,4 milioi € onartutako ERA-NET proiektuei esker

## B+G+b-n eta teknologia transferentzia europar programetan euskal eragileen parte hartzearen sustapena: Enterprise Europe Network – EEN sarearen euskal nodoa

Innobasque, EEN euskal nodoaren kide gisa, 2012-2013an honakoak kudeatu ditu:

- Ia **200** kontsulta
- **70** baino lankidetza-**proposamen** baino gehiago, **134 interes-adierazpen** sortu dituena
- **3** nazioarteko-lankidetza **akordio**
- Aholkua jaso duten **57** enpresa

**Prestakuntza** 32 ikasleri "B+G+b-n nazioarteko proiektuen kudeaketan ikastaro aurreratua"

I+G+b-eko europar politika, programa eta deialdiak hedatzeko jardunaldietako parte-hartzea

**Europar programetan parte hartzeak zer neurritan ekar dezakeen euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza**

Europar lankidetza programetan parte hartzea alferrik galdu ezin daitekeen aukera da. Europa balizko espaziorik onenetako bat da berrikuntzaren arloan, non gainera, erakundeen finantzaketa-mailak zailak diren Estatuaren aldetik berdintzea.

Europar programetan parte hartzeak, artearen egoera markatzen duen ingurune batean kokatzen gaitu. Ingurune batean, zeinak kultura handi batekin batera, ikuspuntu desberdindua osatzen duen, berrikuntza prozesuetarako oso oparoa eta, zalantzarik gabe, gure enpresaren hobekuntzari ekarpena egiten diona.

**Ignacio Mataix**
**ITP**-ko CEO-a






Euskal I+G+b-ren Europan - Koaderno Estrategikoa 2011

**Zeintzuk izango diren ardatz nagusiak "Euskal I+G+b-ren Europako Koaderno Estrategikoa**

Eusko Jaurlaritzak "Euskal I+G+b-ren Europako Koaderno Estrategikoa 2014-2020" orientabide desberdin batekin sortzea erabaki zuen: euskal B+G+b-ren nazioartekotze hobekuntza ahalbidetuko duen estrategia markatzea, europar B+G+b programa eta ekimenetan euskal enpresa eta eragileen parte hartzea handiagoa sustatuz.

VII EPko euskal parte-hartzea arrakastatsutzat jo daiteke:

- **301 euskal erakunde, 904 proiektutan,** 460,65 M€-rekin finantzaturik
- Lortutako finantzazioa VII EPko aurrekontu guztizkoaren %0,92an.
- Euskadik hirugarren kokagunea du espainiar erregioen artean. Tecnalia eta IK4 bi teknologia-korporazioek jasotako finantzazio guztizkoaren erdia lortu dute.

Hartara, Euskadik bere buruari 2.100 europar proiektutan parte hartzeko erronka jartzen dio bere buruari datozen 7 urteetan, eta 805 M€-ko finantzazioa lortzekoa H2020 Esparru Programa berrian ( hazkundearen %75nVII EPrekiko)

**Estíbaliz Hernáez**
**Eusko Jaurlaritza**ko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea



## Euskal parte-hartzearen behatokia B+G+b programetan

7. Esparru Programan (2007-2013) euskal erakundeen parte-hartzearen datuen itxiera 2013an.

Behatokiaren datu-basearen berregituraketa, datorren 2014-2020 aroaren parte-hartzearen datuak jaso ahal izateko.

**Estrategia Koadernoa sortzea**, euskal eragileen parte hartze-helburuak definitzera eta zehaztera zuzendua **Horizon 2020erako**, Europan ikerkuntza eta berrikuntza finantzatzeko programa berria.

Berrikuntza Sistema

# Berrikuntza-Soziala eta politika publikoak

## Berrikuntza politika publikoetan

### Enpresa-lehiakortasun Plana 2012-2013:

Euskalit eta Orkestra-rekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren 2010-2013 Enpresa-lehiakortasun Planaren ebaluazio eta jarraipenerako Proiektu Batzordean parte-hartzea.

### Immigrazioaren aldeko gizarte-hitzarmena Euskadin:

Etorkinak diren pertsonekin integrazio eredua lortzeko, hiritar eskubideak, elkarbizitza kultur- anitza eta gizarte-kohesioa bermatzen dituenak.

Hitzarmenaren dokumentua, kontraste-prozesu baten emaitza dena eta aditu-batzordeaz gainera, 550 pertsonek bertan parte hartu zutena, 2012ko azaroan aurkeztu zen.



**XXI. mendeko euskal udalak, berrikuntzaren rola**

> Berrikuntza etengabeko mugimenduan dagoen helburua da. XXI. mendeko hiriak jarduera sortzeko eta merkatu berrietara irekitzeko duten ahalmenagatik definitzen dira. Berrikuntza eta espezializazio adimentsua gure aliatuak dira lehiakorrak diren baliabideen, dibertsifikazioaren eta ekintzailetzaren bilaketan.
>
> Eraldaketak jarraipena dauka giltzarri diren proiektu eta hiri-irtenbideekin, komuna den estrategia baten inguruan lerrokatuta agertzen diren erakunde eta eragile sozioekonomikoen arteko elkarlanarekin.

**Ibone Bengoetxea**
**EUDEL**eko presidentea



### Gardentasun eta agintaritza onaren Legea:

Innobasque-ren laguntzarekin, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Gardentasun eta agintaritza onaren Aurreproiektuaren inguruko eztabaida. 50 eragile publiko eta pribaturen parte hartzearekin, 3 ardatzen inguruan eztabaidatu zen:

3 ardatz:
- planifikatze eta ebaluatzea
- parte hartzea
- gardentasuna

### Bizialdi osoko Ikaskuntza Legearen oinarriak ezartzeko eztabaida:

2012an amaiera eman zitzaion "Bizialdi osoko Ikaskuntza Legea"ren idazkiari, zeina Aginte Batzordearen onarpenaren ondoren Euskal Legebiltzarrera bidali baitzen.

| | hartu zuten parte | |
|---|---|---|
| 10 lan-jardunaldietan | 100 laguntzailek | 90 erakundetako |

### Enplegu-estrategia Euskadin:

Innobasquek, enpleguaren alorreko eragile desberdinekin batera, Euskadin enplegua sortu eta mantentzeko lagungarri izan daitezkeen ideiak proposatu eta zehazteko proiektuari heldu zion.

### XXI Mendeko udalerria:

Eudel eta Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailarekin lankidetzan, Udal-berrikuntza Agenden batzorde teknikoan parte hartzea, herritarrak Udalerria XXI proiektura gehitzeko. Zentzu horretan, erakundeen arteko topaketa espazio bat sortzeko proposamena egin zen, udal-eremuan berrikuntzaren alde mesede egingo duena.

### Berrikuntza eta parte hartzea Udal politika publikoetan:

bigarren belaunaldiko praktika egokien esku-liburuaren eta ereduzko lanabesen bilduma eraketa, nork bere esperientzia propioen inguruan edo besteen esperientziak oinarritzat hartuz, gogoeta egitera gonbidatzeko herritarren parte hartzea hobetzearen helburuarekin.

**"Parte-hartzearen korapiloak"** esku-liburua
Josu Erkorekak aurkeztua izan zen 2013ko azaroaren 18an, "Demokrazia eta Herri-partaidetzari buruzko Liburu Zuria" elkar-sortzeko prozesuaren kaleratze jardunaldian.

Innobasque, agintaldi honetan aurrera eramango den prozesu honetan laguntzen ari da, Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Publiko eta Justizia Saila eta Lehendakaritzarekin, 2012-2016 programaren barruan.




Parte-hartzearen korapiloak



### Emakumeak Nekazal Eremuan Jardunaldia:

Eusko Jaurlaritzaren Nekazal Sailarekin lankidetza, elkar-arduraren gaiaren inguruan Orduñan ospatutako Nekazal Emakumearen Nazioarteko Eguna 2012ko tailer baten prestaketa eta dinamizazioan.




"Adinaren kudeaketa Euskadiko erakundeetan" gidaliburua

**Hiritarren parte-hartzea**

> Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Plan Publikoaren esparruan, 2013an planaren ildo estrategiko ia guztietan gertatu dira aurrerapen nabariak, elektronikaren Administraritzan lortutako emaitzak nabarmenduz, Interneteko presentzia eta hiritarraren arreta-ereduak finkatuz, eta jakina, Gardentasuna eta Hiritarren parte-hartzea. Era berean, Basque Social Innovation-i bultzada eman zaio.

**Josu Erkoreka**
**Eusko Jaurlaritza**ko Herri Administrazio eta Justiziako sailburua



### Lankidetza-zuzenbidea:

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Publiko eta Justizia Sailaren Justizia Zuzendaritzari "Euskadiko Lankidetza-Zuzenbide Asoziazioa" martxan jartzeko laguntza, 150 pertsona baino gehiagoren aurrean proiektuaren eta helburuen aurkezpena eginaz, 2013ko irailaren 20an Gasteizen.



### Europar ahotsak zahartze aktibo baten alde:

5 europar hirirekin batera (Estrasburgo, Bonn, Praga, Milan eta Londres), "European Voices for active ageing" proiektuan parte hartzea, Zahartzapen Aktiboa eta Belaunaldien arteko Solidaritate Europar Urtean.



Zahartze aktiboaren aldeko europar ahotsak

Innobasquek World Cafe-a antolatu zuen Bilbon, 160 pertsona bertaratuz eta zahartze aktiboaz eta berrikuntzaz eztabaidan aritu zirelarik.



# Gizarte-berrikuntza

## Balioak gizarte berritzaile batentzat:

berarekin fidagarriak eta baliozkoak diren neurri-sorta daramatzan diagnosi-tresna, ahalbidetzen duena gizarte-zein erakunde- berrikuntzari lotuak doazkien balioen existentzia aztertzea, bai eta aipatutako balioen erlazioa behatzea lehiakortasun-ahalmena handitzen duten erakundeen emaitzekin.

## Housing Proiektua: zahartzapena eta etxean egiteko arreta zerbitzu berriak:

zahartzearen ikuspegi integral batean oinarritutako eredu berri bat lantzeko agiria argitaratu zen. Matia Fundazioarekin sortua, 40 erakundek eta 45 pertsonek hartu dute parte.



40 erakundek

45 pertsonek



Zahartzea eta zerbitzu berriak etxean

## "Bankinter Fundazioa – Espainiarako Berrikuntzarako Agenda Proiektua":

Innobasquek, 18 herrialdetako 80 erakundek eta 100 pertsonek parte hartutako ekimen honetan parte hartu zuen.

| 80 | 100 | 18 |
|---|---|---|
| erakundek | pertsonek | herrialdetako |

2012an XXI mendeko Hezkuntzaren inguruko agiria argitaratu zen, bai eta 2012-2013 ikasturtean "Akademia" proiektua martxan jartzeko Bankinter Fundazioa eta UPV-ren artean akordioa lortu ere.



## Gizarte-berrikuntza, pertsonekin eta pertsonentzat balioa sortuz"

**300 pertsonek** baino gehiago hartu zuten parte Nazioarteko Jardunaldi , honetan, **"Gizarte-berrikuntzarako gida" aurkeztu zena, Europar batzordeak** argitaratua Europa 2020 estrategiaren esparruan eta non Euskadi erreferentzi gisa azaltzen baiten Eskualde-garapenari loturik, Gizarte-berrikuntzaren alorrean.

Gainera, gizarte-berrikuntzan Herrigune Leioa, Empoderando al paciente, BBK Bilbao Hostel eta GoiEner-en praktika egokiak ezagutu ziren (bertakoen mailan) bai eta Hungaria eta Suediaren kasu arrakastatsuak ere bai, gizarte-berrikuntza erantsi baitute beren espezializazio-adimentsu estrategian.

> **Berrikuntza soziala Euskadin**
>
> Benetan interesaturik nago Euskadiko berrikuntza sozialaren kasuaz. Mugimendu sozialen rola, euskal identitatea, hizkuntza propioa eta euskal kooperatiben eta ekonomia sozialaren zeregin harrigarria zer ikasi handia ematen digun zerbait dela esango nuke.

**Simon Willis**
**Young Foundation**eko CEO-a



## Ikas Ingurune Komunitarioen Laborategia:

lan-talde baten eraketa.

komunitatea ikaste ingurune gisa, proposamenak euskarritu eta ikertuko dituen laborategi bat diseinatzeko eta sortzeko lan talde baten eraketa.



## Basque Social Innovation (BSI):

Euskadin berrikuntza-sozialetik lan egiten duten hainbat eragilek sortutako plataforma esperimentala, sektore-anitzezkoa den ikuspuntutik eta publiko-pribatu aliantzatik, "behetik goranzko" lankidetzan oinarritutako printzipio eta balioak partekatzen dituztenak.



> **Berrikuntza soziala Euskadin**
>
> "Abizenik gabeko" berrikuntza deskubritzeko pasioa da, egunero hastekoa. "Berrikuntza soziala" bizitzako eta bizitzarako proiektua da. Bizitza bizitua izateko lanabesa. Gogoratzen dut Columbia eta George Mason unibertsitate amerikarrek "Basque Case" intelektualki "hartu" zutenean ni neu izan nintzela lehen harritua. Geroago ulertu dut nahi zutena zela "aurpegi eta begidun berrikuntza" esperientzia bat aztertu.

**Juan José Ibarretxe**
Lehendakari ohia eta **Lehendakari Agirre Center**-eko zuzendaria



Elkarrizketa:

# Emakumea eta Berrikuntza

## Enpresa, emakumeak eta berdintasuna



Matilde Elexpuru

**Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarte**ko presidentea

**Innobasque**ko Batzorde Betearazle eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko presidente eta TISA enpresaren zuzendari nagusia den Matilde Elexpuruk gogoeta egiten du emakumeen presentziaz, ekintzaile eta zuzendari gisa, enpresetako erabaki-hartze esparruetan. Eszenatoki ohikoena eta errepikatuena oso esanguratsua den gutxiengoa da, horrelako esparruetan emakumeen gabezia erabatekoa ez denean.

### Erabaki ahal izan, huts egin ahal izan

UGT Euskadiko Berdintasun Arloko arduraduna den Emilia Málagak lehen pertsonan bizi izan ditu desberdintasun egoerak. Ziurtatzen du emakumezkoek kristalezko sabaia haustea lortzen dutenean, hor goian taldeek egoten jarraitzen dutela, beharrezkoa gertatzen delarik horien bihotzean sartu behar izatea, talde itxi horretan. Horrela, maniobrarako tarte gutxi izaten dute. “Erabaki ahal izan behar duzu, baita huts egiteko eskubidea izan ere; emakumeok huts egiten dugunean, gutxiago garelako izango da seguru asko, gizonezkoak diren kideek huts egiten dutenean

gutxiago garelako izango da seguru asko, gizonezkoak diren kideek huts egiten dutenean baino askoz nabariago gertatzen da”. Málagak dio pertsona guztiek hanka sartzen dutela, baina badirudi emakumeoi gutxiago barkatzen zaigula. “Maila zehatz batean bizi izan dut hori eta izugarria da”.

### Autoeskakizuna

Bere aldetik, Elexpuruk auto-eskakizunaz dio, zentzu honetan bertan. “Izugarri eskatzen diogu geure buruari eta, gainera, gutxi barkatzen diogu”. Badakigulako fokuan bertan aurkitzen garela”, erantzuten du Málagak. “Oso gutxi garelako egiten gara nabari. Eta begiratzen eta ikusten gaituztela ikusten dugulako, geure burua etengabe begiratzen eta ikusten ematen dugu, horrela, frustratzea ere oso erraza da”. UGT Euskadiko Berdintasun Arloko arduradunak jarraitzen du esaten horrek ere zerikusia izan dezakeela emakumezkoak diren ekintzaile gutxiago izatearekin. Elexpuruk gako garrantzitsu bat dakar. Honako hau dio: uneak izaten direla, non egiten denak merezi ote duen zalantzan jartzen direnekoak. “Bai, aukerak. Zentzu horretan, agian garatuegia dugun zuhurtzia daukagu. Zuhurtzia ez da berrikuntza. Ez dakit, baina egia da auto-eskakizunarena”, osatzen du Málagak.

**Emilia Málaga:** “Agian kasu horretan, berrikuntza egitea legea betetzea da, ez betetzeko modu asko baitaude”

**Matilde Elexpuru:** “Berrikuntza, legea egin eta hor jarri zuenak bakarrik egiten duela dirudi, eta kito. Oinarriak badauzkagu, baina dena dago egiteko, praktikan orain jarri behar da”

**Emilia Málaga:** “Honakotik ateratzen garenean, eztabaidaren erdian jartzea lortu eta berdintasuna luxua ez dela exijitu behar dugu. Zentzu horretan eskakizun gutxikoak izan gara eta beharrezkoak ditugu genero eta gainerako berdintasunak orain aldarrikatzea, eta horiek eraikitzen dugun eredu sozialaren oinarri bat izan behar direla”

**Matilde Elexpuru:** “Nola berreskura dezakegu orain galtzen ari garen denbora? Berdintasuna armairu barruan sartu da berriro, ez da ez lehentasunezkoa ez eta larritasunezkoa ere”




**Emilia Málaga:** “400 urte barru lortuko da berdintasuna lan-merkatuan. Hori da LNE, Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostenak zioena, krisiaren aurretik landutakoa. Ba orain, ez dizut ezer esango”

**Matilde Elexpuru:** “Nik ez diet erronka hori datozen belaunaldiei utzi nahi, guztion artean konpondu beharreko zerbait da, hemen eta oraina”

**Emilia Málaga:** “Feminismoa izan da azken hamarkadetako berrikuntzaren faktore handia. Amelia Valcárcel filosofoak zioen. Mugimendu eraldatzaile handia izan da”

**Matilde Elexpuru:** “Niretzat, etorkizunak eta kezka handiena emakumezkoak. Teknologiak eta ingurumenak izan beharko lukete”

**Emilia Málaga:** “Garrantzitsua da emakumezkoek geroz eta presentzia handiagoa edukitzea, izan ere, nahiz eta egia izan berdintasuna lortzea gizarte osoaren erronka dela, baita ere egia da azkenean emakumezkooi gehiago interesatzen zaigula, lehen pertsonan eragiten digulako”

**Emilia Málaga:** “Krisi honek aukera izan behar du. Ereduaren zerbait aldatu eginda, baina eredu hori guretzat hobea izatea lortu behar dugu, horrek esan nahiko baitu guztiontzat hobe izango dela”

**Matilde Elexpuru:** “Ezarria dagoen antolakuntza-eskema hori hautsi egin behar da: gizonezkoak gizonezkoa bilatzen du, gizonezkoak gizonezkoa ezartzen du, gizonezkoek gizonezkoekin enpresa-ereduak partekatzen dituzte...”



Emilia Málaga

**UGT Euskadi**ko Berdintasun Arloko arduraduna

**Innobasque**ko Batzorde Exekutiboko eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

# GIZARTE- ETA EKONOMIA-DINAMIZAZIOA

"Sitearekin hasi nintzenean 19 urte nituen, orduan ez nekien ezer asko negozioez, baina hasi egin nintzen..."
MARK ZUCKERBERG

Dinamizazioak erantzuna eman nahi die Euskadiko **erronka sozioekonomikoei eta globalei** honako hauek sortuz:

- Enplegua
- Bizi-kalitatea
- BPG

## 01 Eko-berrikuntza

Garapen-eredu berritzaileak ezarri ekonomian, ingurumenean eta euskal gizartean era positiboan eragina izango dutenak.

**Southern Europe's Cleantech Hub-en** esparruan plan bat garatzen ari gara jarduera espezializatuko sektoreak bulkatzeko dimentsio lehiakor globalarekin:

- Economic Power of Cities
- Advanced and Clean Manufacturing
- Clean Water & Wastewater Industry-alianza BWater*

- Cleantech iNNvest
- Euskadi Nazioarteko topaketetan parte hartzen ari gara Euskadi haietan kokatzeko.
- Cleantech now

## 02 Gizarte efiosasungarria

Osasuna lehiakortasun-iturri bihurtzea Euskadirentzat, balio ekonomikoa sortzea eta sistema sanitario eta soziosanitarioaren jasangarritasunari ekarpena egitea.

- Gosasun
- Euskadiko paziente kronikoen komunitatea: Kronikoen Sarea
- Crowdsasuna
- Nekazaritza Elikaduraren Berrikuntzako Unitate Mistoa: Katilu
- Teknologia sanitarioak bultzatzen ditugu

## 03 Laugarren Sektorea

Enpresa-jarduerak xede sozialekin lau barrutitan:

- Ekintzailetza Soziala
- Enpresa Erantzukizun Soziala
- Piramidearen Oinarriko Nazioartekotasuna (PO)
- Finantza Sozialak

## 04 Presentzia Globaleko Enpresa Berritzaileen Azelerazioa (PGEBA)

Laguntza, Tentsio Sarearen bitartez hazkuntza-ahalmen handiko enpresei



Dinamizazioa

# Enpresen azeleragailua

Jada sortuak dauden eta **PG EB** (Presentzia Globaleko Enpresa Berritzaileak) izateko ahalmena duten enpresen hazkuntza indartzen eta bizkortzen laguntzen dugu gure bazkide eta adituen sarearen laguntzarekin: Tentsio sarea.

2011an Azeleragailura gehitu ziren 2 enpresen azeleratze prozesuarekin jarraitu da:

**Hib S*Concept**

Enpresen Azeleragailu seilua jaso zuen lehena, azeleratze zikloaren azken faseetan aurkitzen da, hazkuntzaren egonkortze aldian hain zuzen ere. 2014ko fakturazioa 5 milioi eurotik gorakoa izango da, hirugarrengoen produktuak saltzetik beren produktu-lerroak saltzera igaro dira eta, gainera, asmo handiko naziortekotze planean murgilduta dabiltza.

**HIBen hazkuntzarako Azeleragailuak egin duen balio-ekarpena**

Hib Azeleragailuari erantsi zitzaionean 2011n, kokagune ona geneukan nitxo-merkatu batean. Hala eta guztiz ere, beste pauso bat emateko aliatuak behar genituen, proiektua kontrastatu eta 5 urterako plan estrategiko batean gauzatzea.

Innobasqueko Azeleragailuak eskaini zigun behar genuena eta ikaskuntza-sistemak eskain ziezagukeenarekiko osagarria zena; merkatuan dauden profesionalen eta enpresen ideiak (Tentsio Sarea), plan estrategikoa garatzeko laguntza eta, bereziki, aliatu estrategikoak bilatzeko laguntza.



**Adelmo Antelo Malabe**
**HIB group**eko CEO-a

**Virtualware**

Beren negozio-planetan zehaztuta dauzkaten erronken arabera, nazioartekotzera eta produktu berrien sorrerara bideratuta daude, funtsean osasunaren alorrean neuroendekapenezko gaixotasunetara.

**Krisi garaian GESEk bere fakturazioa nola boskoitu egin duen**

GESEn lehentasuntzat dugu gure bezeroek bidai-lagun bat gehiago gisa har gaitzaten. Arriskuak gain-hartzeko ahalmenaz helburuak lortzen ez badira, bezeroaren kontura inbertsioak egitea, eta guztiaren gainetik, kontsumoaren bataz beste %25eko aurrezkiak lortzea, auditoria baten kostuaren 10 eta 15 aldiz handiagoa. Efizientzia erreala argiaren abiaduran.

**Diego Mateos**
**GESE**ko zuzendari nagusia



Azken bi urteotan, hiru enpresa berrik jaso dute Azeleragailuaren Seilua:

**GESE** | **Bidatek** | **Ideable**

Tentsio Sarearen kontrastatze taldeak lau enpresa aztertu zituen: **Unicorp, Kera-Coat, Amicyf eta Minirobots.**

**Nola eragin du zure ekintzaile-esperientziak zure inbertsore aldean**

"Basurde ehiztari on batek ez du ehiztari gisa pentsatzen, basurde gisa baizik".

Startups-etan inbertsore hasiberri gisa, ekintzaile batek nola pentsatzen duen eta bere eguneroko arazoak zeintzuk diren jakiteak, momentu oro proiektu bat edo besteren egokitasunaz bereizteko ahalmena eman dit, eta proiektuen sustatzaileekin harremana asko hobetzea baita ere.

**Carlos Polo**
**Perpetuall**eko CEO-a



**21** enpresa

hurbildu dira Azeleragailura baina, baldintzak ez betetzeagatik, Ekintzailetzarako Berbideratze Sistemara birzuzenduak izan dira.

Elkarrikustea

# Eko-berrikuntzaren inguruan



## Rafael Barrenechea

**Innobasque**ko Batzorde Betearazleko eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

**Grupo Danobat**-eko zuzendari-ohia.



## Asís Canales

**Innobasque**ko Batzorde Betearazle eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

**Innobasque**ko Ekoberrikuntzako Zuzendaritza Kontseiluko liderra

**Iberdrola**ko Erosketa eta Segurantzen zuzendaria

Energia eta manufaktura aurreratua, espezializazio adimenduneko bi barruti dira Euskadirako (RIS3) zeinetan koka litezkeen zuen enpresen jarduerak,

**ekoberrikuntza aukera-bide bat al da barruti horien euskal espezializazioa bideratzeko?**



Berrikuntza da, inolako zalantzarik gabe Iberdrola taldearen apustu handietako bat. Zeharkatzen ari garen ingurune ekonomiko konplexuak behartu egiten gaitu atergabe gero eta efizienteagoak izatera eta, testuinguru horretan **(eko)berrikuntza** jasangarria bide osagarria da gure lehiakortasuna hobetzeko, bai eta, gure negozioetatik, garapen jasangarriari ekarpen bat egiteko ere.

Ildo horretatik, I+G+b-ko gure jarduera guztiak eko-berritzailetzat har daitezke, zeren eta gure sistema, produktu eta zerbitzuen baliabideen **erabilera optimizatzeaz gainera, ingurumenarekiko eragina murrizten saiatzen baitira**.

Nabarmentzekoak dira **Iberdrolak** Euskal Herrian egin dituen ekimenak sare adimendunak hedatzeari begira, eta **itsas energia eolikoarekin** zerikusia duten proiektuak, zeinek, hitz batean, euskal enpresen espezializazio-maila gehitzen saiatzen baitira teknologia berrien barrutian nargindarra sortu eta banatzeko



Ez dago zalantzarik **makina-eremintak** eskulan aurreratuaren erdigunean aurkitzen direla, izan ere produkzio-fabriketako elementu klabeak baitira, dimentsio handitako (energia) edota unitate askorako (automozioa) mekanizatzea ahalbidetzetik, mikro-piezetaraino (osasuna), eta hori guztia prestakuntza eta doitasun handiarekin. Noski, makina-erremintaren munduan lehiakortasuna oso handia da eta beharrezkoak dira desberdintasun faktoreak bilatzea. **DANOBAT GROUP** taldearen kasuan, merkatu-kabi bai eta pieza-aplikazioetako (giltza eskurako proiektuentzat) espezializazioa da, nazioarteko lehen mailako posizionamenduak lortu daitezkeenak, eta horretarako geroz eta garrantzitsuagoak dira **ekoefizientziaren** alorrak (hondakinen bai eta energia-kontsumoaren gutxitzea indartuz).

**Zer eratara ustiatzen da zuen erakundeetan Ekoberrikuntzaren eraldatzearen dinamikaren bitartez atzemandako aukerak?**



**Makina-erremintaren** eremuan eta fabrikazioaren munduan, ekoberrikuntza produzitzeko modu berria bihurtzen da, **ingurumenarekiko errespetutsuago**, baita produktiboagoa dena ere ekonomia ikuspuntutik. Produzitzeko modu berri horrek, eta sortzen dituen makina eta ekipoek ere bai, fabrikatze-prozesuan optimizazio handiz hondakin gutxiago sortu behar dute, bai eta energia efizientzia handiagoa lortu ere. Esparru horretan, europar mailan **BlueCompetence** ekimena dago, eta horren ideia europar makinak besteetatik bereiztea da **eko-teknologiek** makinetan sortzen duten balioaren bitartez.



Energia-sektoreko paradigma berrirantz aurrera egiteko ezinbestekoa dirudi sektore horren funtsezko eraldaketa bat egitea, gaur egun ulertzen denez. Honetan **ekoberrikuntzak** zeregin oinarrizkoa du: teknologia berriak behar dira eta **daudeneko badaudenen gain egindako hobekuntzak energia era merkean eta ingurumenarekiko errespetutsuan** sortzeko aukera eman dezaten eta energia-efizientzia bideratu dezaten.

Nabarmendu egin behar da, ildo horretatik, **Iberdrola Ventures Perseo** ekimena, teknologietan eta eredu berri disruptiboetan inbertsioa egitera zuzendua, energia-ereduaren jasangarritasuna segurta dezaten.

Esperientzia ugarik frogatzen dute berrikuntzak helmen handiagoa duela zenbat eta jaioarazten duten eragile eta sektoreen nahastea handiagoa den,

**zer ekarpen egiten diete zuen enpresei Innobasque bezalako esparru sektoreanitz eta eragileanitz batean lan egiteak?**



Iberdrolako Berrikuntza I+G+b-aren kudeaketako nazioarteko eredu ireki eta dezentralizatu batean txertatzen da.

Prozesua dezentralizaturik independenteki burutzen da negozio-unitate bakoitzean, eta irekita Iberdrolak teknologiaren eragile traktore kontsideratzen du bere burua, zeinetan nagusitzen baita hornitzaile teknologikoekiko lankidetza. Eredu horrek berekin darama honako hauekin lankide izatea: fabrikatzaile, unibertsitate, teknologia-zentro, industria-antolabide eta instituzio publikoak programa eta akordioen bitartez. Ildo horretatik **balio erantsia nabarmentzen da,** zein baita Iberdrolarentzat lankide izatea **Innobasquek** bultzatu eta sustatutako ekimen desberdinetan, esaterako **Cleantech iNNvest Inbertitzaileen** sarean.



Nire ikuspuntutik, oinarrizkoa da sarean egindako lana, hau da, bezeroekin, hornitzaileekin eta **laguntzaileekin konektaturik lan egitea**. DANOBAT GROUPen hainbat proiektu garatu ditugu partenariatuaren bitartez, non sektore beraietan liderrak diren bezeroekin eskuz esku hurren lan eginda, irtenbide berritzaileak lortu diren, lankidetza hori osagai- eta teknologia- hornitzaileen sare zabalarekin partekatuz.

Eremu honetan, INNOBASQUEk mota horretako proiektuak identifikatu eta garatzeko bideratzaile-papera jokatzen du.

Dinamizazioa

# Eko-berrikuntza



## Eraikitze jasangarria

2012an **Euskal Herriko Eraikuntza Jasangarri Bide Orria**, zehaztu eta haren ezarpenerako 2013-2016 ekintza plana sortu zen.

Enpleguan zuen eraginkortasun handia zela eta, baita ere Etxebizitza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan aritu ginen, Lanbide eta Ihobe-rekin batera **Enplegotasunaren hobekuntzarako formakuntza eta birkualifikatze Planaren** eraketan.



Erakuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamikak. Praktika Onen Analisia

EAEko eraikuntza jasangarriko balio-kateko eragileen gaitasunen azterketa egiteko inkesta. Berrikuntza-dinamika Euskadiko Eraikuntza Jasangarrirako

Eraikuntza Jasangarrirako Berrikuntza Dinamika. Eragile Maparako Hasiera Proposamena

## Southern Europe's Cleantech Hub

2013an dinamikaren aholkulari organoek **"Southern Europe's Cleantech Hub" ekimenerako 2013-2014 Ekintza Plana** onartu zuten, 6 proiektutan garatzen diren 3 ekintza-lerrorekin:

**3** ekintza-lerrorekin

**6** proiektutan

**Teknologi garbiak aukera-arlo bezala**

Teknologia garbiak edo CLEANTECH da, zalantzarik gabe, berreskurapen ekonomikoa bultzatuko duen traktoreetako bat ez bakarrik Euskadin, baita ere nazioarte mailan. Sektore horretan beharrezkoak diren berrikuntza, industria-ahalmen eta nazioartekotzea bezalako faktoreek Euskadi bihurtzen dute sektorean erreferente mundiala izateko hazteko gune egokiena.

**Miguel Retolaza**
**HBiO**ko bazkide fundatzailea



### 1 DINAMIZAZIOA

Nazioarteko dimentsioa duten irtenbide lehiakorrak eskaintzen dituzten euskal enpresei negozio-aukerak sortzeko. Honako proiektu hauen bitartez:

**Economic Power of cities.** Nazioarte mailan, hiri-eraldaketen eremuan aukerak identifikatu eta horiei erantzuna emateko, enpresa desberdinen edota erakunde publiko, finantza-erakunde edo zerbitzu aurreratuen enpresak bezalako bestelako ahalezko eragilerekin ahalmenak batuz.

**Advanced & Clean Manufacturing.** Cleantech berritzaileak diren irtenbideak dituzten enpresa-proiektuak bultzatzeko, euskal lan-esku industriak planteatzen dituen erronkei erantzuna eman eta haien lehiakortasuna hobetzen dutenak.

Clean Water & Wastewater Industry. (**BWater, Innovative Alliance**) sortzen da, lankidetzan irtenbide berritzaileak garatzeko hiri zein industriakoak diren ur eta ur-zikinen kudeaketa eta tratamenduan, udal eta nazioarte mailan aplikagarriak izateko.






Southern Europe's Cleantech hub

### 2 INBERTSIOA ETA FINANTZAZIOA

Sare eta **Cleantech iNNvest** antenen bitartez berritzaileak diren enpresa-proiektuetan inbertsioak eta finantzaketak egiten dituztenak.

| 2013an: lotura | 19 erakunderekin | 18 itxitako lankidetzekin |
| --- | --- | --- |

Sarearen bazkide batek, bidali diren 38 proiektuetako proiektu 1ean inbertitu du, 150 proiektu identifikatu ondoren.



**Zer balioren ekarpena egiten duten elkar-inbertsio sareek**

Orza-ri Cleantech iNNvest sareak, teknologia garbien alorrean proiektuetara sarbidea ekartzeaz gainera, inguruko inbertsio-eragileekin kontaktua ekartzen du baita ere: enpresa-korporazioak, pribatuak eta instituzionalak diren inbertsoreak, eta teknologia-inbertsoreak. Inbertsore profil desberdintasun horren arteko loturak elkarlan eta konfiantzazko ekosistema sortzea laguntzen du, proiektuetan elkar-inbertsioa erraztuz, edota sozietate baten hazkunde fase jarraiak finantzatuz.

**Joanna Domingo**
**Orza**-n inbertsio analista



### 3 POSIZIONAMENDUA

"Basque Country" markarena nazioarte mailan herrialde berritzaile eta lehiakor gisa teknologia garbietan.

-Nazioarte mailako topaketetan parte hartuz:

**Cleantech Forum Europe 2012** Munich-en. Zenbakitan: 416 parte hartzaile, 258 antolatzaile, 35 herrialde. 43 euskal ekintzaile, zuzendari eta inbertsore bertaratu ziren.

**I European Investor's Connect de Cleantech Open.**

**Cleantech Forum Europe 2013** Bilbon. Zenbakitan: 500 bertaratutako, 33 herrialdeko 320 erakunde, Europaz kanpoko %17ko entzuleria. %23 inbertsoreak, %13 ekintzaileak, %26 enpresa korporazioak. 450 prentsa-eragin udal, estatu eta nazioarte mailako 182 komunikabidetan. **Arrakasta bertaratzean eta aukeren sorreran** 8 lan-talde eta 55 erakundetako 100 pertsona aritu ziren topaketa honetan.





**Zer dakarkie Lhko ikasleei Cleantech Now! bezalako ikasgelaz kanpoko dinamiketan parte hartzeak**

Euskadiko Lanbide Heziketan, talde-lana, sormena, berrikuntza, komunikazioa eta harremantzeko ahalmena dira gure ikasleria prestatuak izatea nahi ditugun gaitasunak, arduratsuak eta ekintzaileak diren pertsonak izan daitezen.

Cleantech Now! ekimen bikaina da, izan ere ikasleari bere ohiko ingurunetik irten eta ikasteko leku berri batean sartzea eskaintzen baitzaio, teknika, ideia eta sentsazio berriak transmitituz, bere ohiko ikaste prozesua aberastu eta indartzen duena.

**Javier Unamuno**
**TKNIKA**n Ekintzailetza Dinamizatzailea



Teknologia berriak gazteei modu berezian hurbilduz **Cleantech now!** ekimenarekin eta bere jarduerekin: unibertsitarientzat GreenINN eta Cleantech showcase tailerra, Ikasleek karrera amaierako proiektua edo enpresa-proiektua aurkezten duten lehiaketa.



"Cleantech Forum Europe 2013" emaitzen txostena

Proiektu horiek guztiak **Espezializazio Estrategia Adimentsuak (RIS-3)** ezarritako lehentasunekin lerrokatuta daude: energia, lan-esku aurreratuan eta biozientzietan espezializazio sailak bultzatzeko.

Elkarrizketa:

# Osasuna eta Berrikuntza

## Osasuna, I+G-ean inbertitzearen garrantzia



Azucena Castro

**OWL**-eren zuzendari nagusia

**Innobasque**ko Batzorde Betearazle eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Ikerketa eta Berrikuntzako zuzendaria den Maria Aguirrek biztanleria orokorrean prestatzearen garrantzia aipatzen du, ez bakarrik ikerketaren garrantziaz, baizik eta ikerketaren mugarriez, nola garatzen den. “Uste dut oraindik badela halako ez-ezagutza bat zer erlazio dagoen I+G eta inbertsioaren eta herrialde bateko aberastasunaren artean. Eta horretan ziurtatzen du Aguirrek, Euskadi erreferente argi bat dela.

### Eskolatiko informazioa

OWLeko zuzendari nagusiak, Azucena Castrok, adierazten du bestalde, osasunari buruz ari den eta ikerketa berritzaileak egiten dituen enpresa bezala , beharrezkoa dela aurrera-pauso bat egitea jendaurrean agertzeko, ikerketa-mota hori nola egiten den uler dadin. “Agian ezagutza faslta bat ere badago zein den ibilbidea berrikuntza bateraino iritsi arte, nola lortu inplante bat, errotula bat...edozein berrikuntza, denik eta txikiena delarik ere, ibilbide luzea du”. Esaten dute hamabost urte pasa daitezkeela farmako bat merkatura iritsi arte eta gaixotasun bat tratatzeko eraginkor bihurtu arte. Castrok azpimarratzen du garrantzitsua dela gai hori eskolatik lantzea osasunerako eta pertsonen bizitzarako hil-biziko garrantzia duten barruti guztietan.

**María Agirre:** “Osasun-sistema irekita dago berrikuntzara erta bilakaera izan behar du aldi bakoitzean zerbitzu hoberenak emateko. Azken urteetan aurrerapen harrigarria izan da goi-teknologietan, diagnosi- edo tratamendu sistemetan, eta ikusten ari gara IKTeei, telemedikuntzari edo osasun elektronikoari lotutako aurrerapena. Gure gizartea ez da aldatu handiagoak egin garelako bakarrik, baizik eta gure artean jokatzeko moduarengatik ere bai, osasun-sistemarekin edo administrazio publikoarekin, adibidez, horretan ere desberdina da.”

**Azucena Castro:** “Ongi dago tratamendu eraginkorrak izatea glukosa edo kolesterol altuak dituen persona batentzat, baina agian ez da beharrezko pilula bat hartzea bizi-ohitura hobeak bagenitu”.

**Azucena Castro:** :”Pertsona batek kronikoa izan beharko du kronikoa izan behar duenean, ez izan baino lehenago”.



### Partaidetza-ekimenak

Maria Aguirrek adierazten du, azken auzo horri buruz, gaur egun ere badirela aurrerapenak. Eta crowdfunding-a aipatzen du adibide gisa, zerene ta gizarte osoa hartzen baitu. Gainera, Osasun Berrikuntza eta Ikerketako Euskal Fundazioa ere, hartzen ditu dohaintza partikularrak, ikerketarako hain zuzen ere. “Hori ere hazkuntza-salda bat da, hazten ari dena, baina ahalegin gehiago egiten jarraitu behar da”.

”Elkarrekin egindako lana izan behar du”, dio Azucena Castrok. Elkarrekin erlazionatuago egon behar dugula dio, zeren eta ikerketa ezin baitaiteke alde batetik joan, enpresak bestetik, eta osasun-sistema eta gizartea bestetik.

### Ikerketa ardatz bezala

Osasun-sistemaren epe luzerako helburuetako bat, azpimarratzen du Maria Aguirrek, honako hau da: laguntza-ekintza bakoitza ikerketa-ekintza bat ere izatea, eta alderantziz, biztanleriari arretarik hoberena eta zaintza hoberena emateko. Azucena Castro bat dator; dagoeneko hasita dagoen bide bat dela, eta ibilbide luzekoa dela eta fruitu txundigarriak eman ditzakeela.



María Aguirre

**Eusko Jaurlaritza**ko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria

**Innobasque**ko Zuzendaritza Batzordeko kidea

**María Agirre:** .”Pertsonak dira politika guztietako eta gure jarduketa guztietako ardatz nagusia. Batez ere, egoera sentikorretan, ospitale batean gaudenean bezalakoetan.”

**Azucena Castro:** “Euskal Herriko osasungintza oso aurkezpen-txartel ona du mundu guztian. Alabaina, elkarrekin lan egin behar dugu eta lankidetza-bide hoberenak bilatu osasun-sistema jasangarria izan dadin eta benetan eraginkorrak diren teknologiak sar daitezen”.

**María Agirre:** ““Gaixotasun baten edo gertaera larri baten egoera prebenitzea da kontua. Osasuna sustatzea da kontua”.

**María Agirre:** Irtenbideen eta produktuen garapenak lagundu egiten dio osasun-sistemari jasangarria izaten.”

**Azucena Castro:** “Medikuntza pertsonalizatuak ez du zerikusirik pertsona bakar baten medikuntza-kontzeptuarekin, baizik eta paziente-taldeenekin, zeinak trata baitaitezke modu egokiagoan. Hau da, paziente-talde bat tratamendu eraginkor hobe batekin zentzu guztietan”.

**Azucena Castro:** : “Pertsonak berak jabeturik egon behar du bizi-kalitate handiagoa bat etorkizunean izatera iristeko eskolatik hasi behar dela. Eta pertsonak berak diot, ez pazienteak, zeren ez baitu iritsi behar gaixo egotera”.

ikusi bideoa



Dinamizazioa

# Gizarte Efiosasungarria



> **Zergatik sartu duzuen"osasungarri" ikuspegia zuen enpresa-proiektuan**
>
> Osasungarri ikuspegiak balio handi baten ekarpena egiten dio gure enpresari. Orain inoiz baino gehiago da garrantzitsua jarduketa-mota hau gure produktuetan desberdintzea kontsumitzaileari balio erantsi baten ekarpena egitea lortuz.
>
> Garaiotan joera handia dago nork bere burua zaintzeko, horregatik ari gara azukre gutxiko produktu berriak landu eta eskaintzen, edo beste osasungarriago batzuez ordezkatzen: irin integralak, kanabera-azukreak, etab, elikadura-balio handiko produktuak eskainiz beti, produktu naturalak ezarriz, kontserbagai eta koloregairik gabeak eta, jakina, koipe trans-saturatu gabeak.

**Mikel Marcos**
**Barrenetxe**ko gerentea



## Gosasun

Pertsona guztiek eta ingurune guztiek (heziketan, udalerrian, lanean) bizi-ohitura osasungarriagoak hartzea sustatzeko mugimendua

**60**
60 eragile publiko eta pribatu
baino gehiago atxikiak

Lankidetza-ituna **Fagor** Taldearekin **"Diet on health"**-en erabilerarako. Helburua: elikadura-ohiturak, jarduera fisikoa eta pertsonen emozioen kudeaketa aldatzen laguntzeko

**Gosasun Zigilua: Getxo Kirolak-i** eman eta **"Zure bizkar-zorroan ogitarteko bat egunero"** ekimenari

**Gosasun web-gunea** sortu honetarako:

Euskadin ohitura osasungarriak sustatzen dituzten eragileak taldekatu eta ikusgai bihurtzeko

Dagoeneko badiren osasun-aktiboen mapa bat marrazteko

**Gosasun Tailerrak** eragileen artean ezagutza eta elkarrekintza bideratzeko, praktikak partekatu eta haiek hedatzeko.

## Kronikoen sarea




Paziente kronikoen euskal sarea sortu, garatu eta dinamizatzeko, paziente-elkarteekin lan eginez.

Sareko kideekin topaketa, nola aurrez aurrekoak (Kronikoen Sarea Kafeak), hala birtualak, **"Ikas ezazu zeure burua zaintzen"** saileko irekierarekin 2013an, zeinean garatu baitziren 4 topaketa auto-zainketari buruz.

## Crowdsasuna

Crowdfunding-ekimena osasunaren eta bizitza osasungarriko barrutiko proiektuetarako.



**26 proiektu** aurkeztu ziren eta **5** hautatu ziren lehen finantzaketa-txandan parte hartzeko. **3 proiektuk** lortu zituzten funtsak:

**CUIDAdano Ataria,** Auzo-laguntzarako sare bat sortzeko (atarietan, komunitate edo auzuneetan), halako moldez, non pertsonek elkarri lagunduko dioten hiritarren erantzukidetzako sare bat sortuz.

**Asvasamen Gimnasio Emozionala** ikasi, lan egin eta emozioak lantzen ikasteko bost prestakuntza-mailaren bitartez.

**Nazioarteko foro espezializatuetan** **Gurutzetako Ospitaleak** (Bizkaia) **garatutako Haurren intoxikazioari buruzko Azterlana** hedatzea.

> **Crowdfundingaren eragina zuen proiektuan**
>
> Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatriako Larrialdi Zerbitzuko "Haur Intoxikazioak" proiektua honetan datza: nazioarte-mailako pediatria-intoxikazioen erregistro bat lantzean. Kanpaina horrek estutu egin ditu pediatra eta biztanleriaren arteko harremanak eta azterlan hori nazioarteko pediatria-bilera ospetsuenean aurkeztua izatea bideratuko du



**Santiago Mintegi**
**Gurutzetako Ospitale**ko larrialdietako medikua, **Pediatriako Behatoki Toxikologiko**aren koordinatzailea eta **Mundu Behatoki**aren zuzendaria

3 proiektuek **guztira**

**22.887**
euro lortu zituzten

**312**
kofinantzatzaile parte-hartzaile

Batez besteko ekarpena:
**40-45 euro / pertsonako**

## Katilu




Innobasque, Hazi, Neiker eta Azti-ren ekimena ankidetzako berrikuntza sustatzeko nekazaritza-elikadurako sektorean landa- eta kostalde-ingurumenean

2013: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren zerbitzura tresna gisako ziklo berria.

**Jarduerak:**

Nekazaritza-elikadurako Berrikuntzako Foroaren Idazkaritza Teknikoa eta Agenda Digital Nekazaritzakoa eta Landakoa (ADAR 21), proiektuen ekipo-liderra dinamizatuz.

Landa eta kostalde-ingurumeneko eragileen proiektuetako fase desberdinetan parte-hartzea

**Azterlana** Euskadiko lehen **sektoreko erakunde kolektiboen** eta ondasun komunen kudeaketaz.

**Katiluren aurkezpena** Euskadiko nekazaritza-elikadura sektoreko **"Innovation Broker"**, European Innovation Partnership-en barruan (EIP) "Agricultural Productivity and Sustainability" Estrategia Europa 2020 esparruan garatua.

"Asmo-aldaketa Benetako Partaidetzaren bitartez" prestakuntza-programaren Antolaketa **Aldaketa Eragileen Sarea eraikitzeko** oinarri bezala. Nekazaritza-elikadura eta landa-eta kostalde-ingurumen-sektoreko 28 pertsonak parte hartu zuten.

## Osasun-teknologiak

**Negozio eta/edo empresa berriak sortzea** sustatzeko eremu horretan, "sektore tradizionaleko" enpresen desberdintzea sektore horretarantz eta **produktuak, zerbitzuak eta osasun-irtenbide berritzaileak eta balio erantsikoak sortzera**, eskari globala bati erantzuten diotenak.

**Osasun-teknologien sektoreko eragileen mapa** landu eta eguneratzea

**"Produktuak, zerbitzuak eta osasun-irtenbideak gizarteratzeko plataforma-ren"** definizioa, metodologia eta sorrera, Bioef-ekin batera.



Osasunaren kudeaketa erakundeetan

Elkarrikustea:

# laugarren sektorearen inguruan



## Txema Franco

**Innobasque**ko Batzorde Betearazle eta Zuzendaritza Batzordeko kidea

**Innobasque**ko Laugarren Sektoreko Zuzendaritza Kontseiluko liderra

**Lantegi Batuak**-en zuzendari nagusia



## Sergio Murillo

**Bizkaiko Foru Aldundi**ko Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia

**Innobasque**ko Laugarren Sektoreko Zuzendaritza Kontseiluko kidea

### Zer neurritan bihur ditzakegu erronka sozialak berrikuntza-iturri arduratsu, jasangarri eta inklusibo?



Euskal gizarteak behin eta berriz erakutsi du, historian zehar, aurre egiteko bere gaitasuna eta erantzun berritzaile eta arduratsuak, jasangarriak eta inklusiboak prestatzeko ahalmena aldian aldiko erronkei.

Ziur nago gaur ere gai garela erronka horiek erantzun berri bihurtzeko. Kofradiak eta anaiarteak aurrena, eta kooperatibak eta ikastolak gero, izan dira aldian aldiko erronkei emandako erantzunak. **Gaur, euskal ADNaren osagaitzat hartzen dugu sistema sozial aurreratua, kooperatibismoa edo hizkuntza propioa eskolan irakasten dena; baina garai batean eraiki egin behar izan ziren erantzun horiek** gaur instituzio sendo bihurturik daudenak, gure Herrialde honek bere-bereak dituenak. Gai izango gara hori berriz egiteko!



Ez dago persona eta erakundeentzat inspirazio-iturri handiagorik, gizateriak bere aurrean dauzkan arazoen irtenbideari ekarpena egitea baino. **Beraz, gaurko gizarteak bere aurrean dituen erronkek eta desafioek, berrikuntza-iturri izaten jarraituko dute**, erantzun eta irtenbide berriak behar direnez gero. Halaber, garrantzi berezia hartzen du irtenbide berri horien nolakoak ere, zeren eta gure kulturan edozerk ez baitu balio gizarte-arazoak konpontzeko. Erantzun berriek indarrez hartzen dute aniztasunaren ikuspena eta, horregatik, inklusioarena, bai eta proposatutako fokapenaren jasangarritasuna eta erantzukizuna ere.

### Zein izan behar du publikoa eta pribatua denaren egitekoa? Erronka horiei erantzuna emateko?



Errealitate sozialak dei egiten digu erakundeei eta enpresei, pertsonei eta instituzioei, salbuespenik gabe. Eta erantzuna ez dago egiterik ikuspen dikotomikoetatik, zeinek kontrajartzen baitituzte publikoa eta pribatua dena, eta egiteko desberdinduak esleitzen dizkigutenak aktoreetako bakoitzari. Agian ikastolek ez al dute laguntzen hizkuntza baten belaunaldien artean transmititzen?, hori interes pribatu bat al da?

Izatez, hori da Laugarren Sektorearen azpian dagoena., zein baita ekimen pribatua eta interes publikoa bat datozen gunea. **Proiektuak, erakundeak eta enpresak eraikitzeaz ari gara hitz egiten, zeinek ekarpen kolektiboa egingo diote Euskadi inklusibo eta jasangarri bati,** gizartetik gizartearentzat



Gaur egun, publikoa eta pribatuaren arteko lerroen esku-hartzea lausotzen edo birmarrazten ari diren dira atergabeko eran. Gauza bera esan dezakegu sektore klasikoen arteko banaketaz, lehen sektore publikoaz, bigarren sektore pribatuaz edo esku-hartze sozialeko hirugarren sektoreaz, adibidez. **Gero eta beharrezkoagoa da lankidetza eta elkarlana sozialak diren eta denoi dagozkigun erronkei ekiteko guztien ongiaren zerbitzura bakoitzak jar dezakeen balio handienaren ekarpenaren ikuspegi batetik.**

Enplegu-, ongizate-, partaidetza-, zahartze- edo osasun-terminotan euskal gizartearen itxaropenak kontuan harturik, adibidez,

### zer rol izan dezakete erakunde eta enpresa sozial berritzaileek?



Esku-hartze sozialeko erakundeak eta empresa sozialek egitateekin erakutsi dute gai direla enplegua mantentzeko testuinguru konplexutan, bai eta enplegu berria sortzeko ere esklusio eta minusbaliotasuneko arriskuan dauden kolektiboentzat, kudeaketa parte-hartzaileago eta guztien ongira bideratutako ereduak garatuz, eta arazo sozial konplexuak ebatziz, hala nola inklusioa edo zahartzetik eratorritakoak. **Berrikuntza sozialak, eta horregatik, enpresa eta erakunde sozial berritzaileek lagundu egiten dute, zalantzarik gabe, merkatuen eta gizartearen beharrak eta erronkak aukera bihurtzen gehien behar duten pertsonentzat.**



Benetan sinesten dut Euskadi, bertako gizonak eta emakumeak, gizarte zibila, bertako erakundeak eta enpresak gai izango garela ahalegin sortzaile bat egiteko erronka eta itxaropen horien tamainaren parekoa.

Hori bai, ataza horretan, iraganari emandako edozein erantzunek ez du balioko orainaldiko erronkei aurre egiteko, eta etorkizuna bermatzeko itxaropenen maila. Horregatik, sinetsirik nago **erakunde sozial berritzaileak "ikastola" berriak, "kooperatiba" berriak, "kofradia" berriak... izatera deituak daudela,** zahartzeari, partaidetzari edo desberdintasun sozialei emandako benetako erantzun bezala. Baina horretako ezertxo ere ez da egingo behingoz ez eta baterako obra batean; gauzatze konkreto eta kolektiboetan egingo da, izatezko erantzunak sortuko dituztenetan. Horretan saiatu behar dugu, baldintzak sortzen erantzun horiek agertu, hazi eta sendotu daitezen

Dinamizazioa

# Laugarren sektorea

**Laugarren Sektorearen Patzuergoa Euskadin** Eraketa (2012ko otsaila)

**"Laugarren Sektorea Euskadin"** ikerketaren aurkezpena
Helburua: Laugarren Sektorearen diagnosia egitea, erakutsiaz gure lurraldearen egungo ekonomian duen dimentsioa eta pisu erlatiboa.



Euskadiko 4. sektorea

> Zer zailtasun daude ekintzailetza sozialaren finantzaketan? Eta zer aukera eskaintzen ditu epe ertain eta luzera?
>
> 1. Ekintzailetza ideia gainditzea enpresa-merkataritzako ekimenak abian jartzeko zerbait mugatua bezala, ekimena hartzean hobeki pentsatuz.
>
> 2. Ekonomia eta dirua nahastea utziz, eta inbertsioa eta itzulkin soziala, era orekatu eta banatuan beste kapital batzuekin batera ( soziala, sinbolikoa, lana, kulturakoa, harremanetakoa, ekologikoa, osasuna) kapital finantzarioa jokoan hartzen duen zerbait bezala ulertzea.



**Ricardo AMASTÉ**
**ColaBoraBora**ko biztanlea

## EKINTZAILETZA SOZIALA

**Momentum Project**-en bigarren edizioa: Ekintzaile sozialei laguntza emateko proiektua, finantzaketa, prestakuntza, aholkularitza eta mentorizatze moduan.

2012an **97 hautagaitza** aurkeztu ziren. Horien artean, **finantzatuak izateko 10 proiektu** aukeratu ziren, eta lehenbiziko aldiz, **euskaldun bat: Txita Txirrindak.**

**Ekintzailetza sozialari bultzada**

**"Ekintzailetzaren Euskal Plana"**-ren eraketa-esparruan **proposatutako ekintzak:**

| | | |
|---|---|---|
| Euskadiko Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Zentroak **sustatzea eta ikusgarri egitea.** | Izaera berritzailea duten enpresa sozialak **bultzatzea eta laguntzea.** | Ekintzailetza sozialarentzat **laguntza-sistema diseinatzea sarean.** |

## NEGOZIO INKLUSIOBEN NAZIOARTEKOTZEA PIRAMIDE OINARRIAREN (PO) BITARTEZ

**1** **Enpresen aukeraketa, diagnostikoa eta merkatuaren ikerketa:** : Piramidearen oinarrian erakundeei laguntza beren nazioartekotze prozesuetan.

**2** **Tokiko aliantzak:** behin **4 enpresak aukeratuta**, tokikoak diren bazkide egokienen bilaketa hasi zen, norakoan **produktu/zerbitzuak merkaturatzeko.**

**3** **"PO Bekadunak" Global Training Diru-laguntzak programa (Eusko Jaurlaritza)**

"Global Training" (GT) Programaren esparruan PO espezializazioa bekadunentzat. Nazioartekotze-alorrean prestatze, trebatze eta praktiketako diru-laguntza eman zitzaien **500 gazteetatik,**
**3 PO-aren** alorrean lanean dabiltza honako hauekin:

**Urkide Berrikuntza Zentroa, Uruguayko Unibertsitate Katolikoarekin** lankidetzan; Anesvad Fundazioa, **Alert India**-rekin lankidetzan; eta **UnLtd (Erresuma Batua).**



> Nolakoa den zure esperientzia Indian lanean piramidearen oinarrian
>
> India egunean 4 $ baino gutxiagorekin bizi diren pertsonen ehuneko handiena duen herrialdeetako bat da munduan, hau da, piramidearen oinarrian dagoen merkatua oso zabala da eta bertan inbertitzeko interesa duten enpresei aukera asko eskaintzen die.
>
> Pertsonalki oso aberasgarria izaten ari da merkatu honetan proiektu bat garatzea bai eta gure helburuarekin hain murgilduta dauden enpresekin elkar harturik lan egitea ere.



**Josu Martínez**
**Global Training** bekaduna, bere lana **Anesvad-Alert Indian** ari da garatzen

## ENPRESA GIZARTE ERANTZUKIZUNA (EGE)

2012ko ekainean Inobasquek, **EGE-ETE ekimenaren** erakunde lagun gisa, lankidetza-hitzarmena sinatu zuen, EGE kudeatze tresna eta prozeduren garapena eta ezarpena ETE-etan sustatzeko.

**EGE-ren aplikazio esparru-ezarpen metodologikoa**ren argitalpena: gizartean sortzen dituen eraginen ardura hartu nahi duen eta Euskadiko enpresa-ehuna osatzen duen edozein erakunderi zuzendua.



Metodologia-esparrua Enpresa Erantzukizun Soziala ezartzeko Euskadin

> Giza eskubideak eta EGE
>
> Giza eskubideen inguruan nazioarteko arauek eta bezeroen aldetik hazten doan kontzientziazioak enpresei itxaropen handiak ezartzen dizkie korporatiboak diren hiritar global paperean. Innobasquerekin batera, erakundeok ez daukagu aukera soilik gure ahalmena aztertu eta arduratsuak diren enpresa praktikak modu onean bideratzeko, baita ere gure jarduera giza eskubideak betetzearen arriskuak eta aukerak modu eraginkorrean kudeatzen ikasten dugu.

**Isaac Ruiz Urionabarrenetxea**
**Gamesa**-ren EGE zuzendaria



Innobasqueren EGE-ko i-Taldeak **Osasun sektorea erosketa publiko arduratsuaren traktore** proiektua sustatzen du.
Helburua: Euskal administrazio publikoak erosketa arduratsu irizpideak ezartzea produktuak erosi eta zerbitzuak kontratatzean. Bilboko Eskualdean proiektu pilotua garatu da

**Bioeskola BBK:** Gizarte-berrikuntza ekimena, Innovalan-en esparruan garatutakoa, **20 lan-postu sortu ditu** buruko gaitza duten edota baztertze arriskuan daudenen artean.

Giza eskubideekiko Ardura **soziala energia sektorearen hornidura katean Euskadin proiektuaren emaitzak:**

| | |
|---|---|
| **Energiaren sektorean aplikatzekoak diren giza eskubideen jarrera eta kode estandarra**, gutxienekoak diren printzipioak bermatzen dituena, enpresen praktika eta operazioetan, bai eta Euskal Herriko energiaren industria-enpresen hornitzaileenetan ere bai, giza eskubideak eta oinarrizkoak diren askatasunak errespetatuz. | **Ebaluaziorako eta auditoriarako tresna, hornidura-sisteman giza eskubideekin bat datorrena**, aplikatzeko interesa duten sektorekoak diren enpresa guztientzat modu irekian diseinatutako tresna. |









## FINANTZA SOZIALAK

**Finantza sozialen i-Taldearen eraketa.**

Helburua: **finantza sozialaren alorrean** inplikatuak dauden aktore eta erakunde desberdinen artean **aukera eta proiektu berriak partekatzeko topaketa-leku eta -espazioa** bihurtzea.

Finantzaketa sozialean **Tresna-katalogoa** sortu zen.

Dinamizazioa

# Adimen Emozionalaren partzuergoa (AEP)

## Pertsonengan eta inguruneetan zentratua

**ELT**ak kontzeptua lantzen da **(emozioaren eta lankidetzaren teknologiak).**

Ekipo Traktoreak lan egin du AEParen eraldaketa-prozesua diseinatu eta eragiteko **"Pertsonengan eta Inguruneetan Adimen Emozionalaren Partzuergoaren Berrikuntzarako" Elkartea**

## Ikaskuntza eta entrenaketa

ELT egunak: **9** tailer | **260** pertsonaren partaidetzarekin

**Prestakuntza aurreratuko 2 programa** ("Adimen emozionala erakundeetan eta hezkuntzan" eta "asmo-aldaketa benetako partaidetzatik") en los que han participado **58 personas**.

**Programa berrien diseinu eta sustapeneko lankidetza:** "Entrenatzaile emozionalak" eta "Espezializazio-ikastaroa kapital sozialean eta lankidetza-lidertzan".







**Adimen Emozionaleko Partzuergoa aldi berri bat irekitzen ari da, zeintzuk dira aldaketa nagusiak?**

Irabazi-asmorik gabeko Elkarte bezala eratzeaz harago, AEP Ikaskuntza eta Lankidetzako Berrikuntza Elkarte Komunitate izatera pasa da izatez,zeinean mantentzen diren Inklusioa, Lankidetza, Pertsonak eta Ekipoak, identitate-ezaugarri bezala, zeinen gainean , Adimen Emozionalaren garapenaren eta hedapenaren bitartez, egin nahi baitiogu geure gizarteari beharrezko know-how-aren ekarpena berrikuntzan benetako erreferente izan dadin, ELTak eskainiz garapen horretan funtsezko osagai izan daitezen.

**Pablo Cueva**
**Adimen Emozionalaren Partzuergo**ko presidentea





## Berrikuntza-ekipoak sarean eta eraldaketa-proiektutan

**Aldatze Alfabetatze emozionala:** hezkuntza-komunitatearen 3 barruti hartzen ditu: AEeko eta adimen anitzetako prestakuntza bideratzaileentzat, "Guraso izatearen abentura amentzat eta aitentzat eta zirkuitu emocional baten garapena, 65 haur baino gehiagok parte hartuz" tailer-zikloak "

**+65** haur

**Askora-rekiko lankidetza** kanpaina honetan: "Atseden-orduan, sartu hagina frutari" zeinean lehen mailako 3.000 haurrek baino gehiagok parte hartu duten.

**3.000** lehen mailako haurrek.

**AKTIVATe: Gaitasun sozioemozionalen garapenerako metodología** langabezian dauden 45 urte baino gehiagoko pertsonentzat, jarduera **fisikoaren bitartez.**

Ebaluazioa lehen esperientzia pilotuarena gaitasun sozioemozionalak hobetzearen ermaitzarekin.

**Arreta (Arteak, Erantzukizunak, Talentuak):** un grupo de jóvenes que desarrollan el voluntariado en el ámbito de la educación no formal, en situación de búsqueda de empleo o de mejora del mismo, buscan soluciones para mejorar su situación desarrollando sus competencias socioemocionales.

**HiruZubia:** heziketa **sozioemozionaleko programa integral** baten diseinua Elgoibarko Aubixa Aterpetxean garatzeko.

**"Berrikuntza ekipoetako lanerako entrenaketa: ekipoa eta erakunderako onurak"** argitalpenaren aurkezpena berrikuntza-ekipoek garatu duten **ikerketa-ekintzako proiektuaren** emaitza bezala.



Berrikuntza-ekipotan lan egiteko entrenamendua: ekipoa eta erakundearentzako etekinak

**Elkano: eteeak eta mikroeteak eraldatzeko programak** Elektrizitate- eta mantentze-sektoreko **12 enpresaburuk** parte hartu dute.

**LED (Empresas Delfín-eko laborategiak):** Sorkidetza, lankidetza eta ikaskuntzako esperientziak erakunde batekin baino gehiagorekin proiektu errealetan garatzen ari direnak.

**REDINN:** Metodologia baten garapena **berrikuntza-ekipoak konfiguratu eta bideratzeko sare eta komunitateetan.**

3D osasun-inguruneak: programa integral baten garapena **erakundeetako pertsonengan ohitura osasungarriak garatzeko.**

Ikerketa-prestakuntza-ekintzako proiektuaren argitarapen berria: **"Berrikuntza-ekipoak eraldaketa-eragile":** 8 erakunderekin, zeinetan konfiguratu diren 25 bat berrikuntza-ekipo

**25** berrikuntza-taldeak

**Nola Adimen Emozionalak elektrizitate eta mantentze sektorearen enpresen lehiakortasuna hobetzen lagundu dezakeen**

Bezeroek instalatzailean konfiantza izateak, haien itxaropenei erantzuna emateak eta gure langileriaren konpromisoa sortzeak bai enpresarekin bai bezeroekin ere, beraiekin harreman zuzena dutena, abantaila emango digu kalitatearen bikaintasuna bai eta salneurri onena aurresuposatuak daudenean.

**Jesús M. Gómez**
**Instagi**ko kudeatzailea



## AEPeko ikerketa-unitatea

2013an **unitateko equipo dinamizatzailea** sendotu da eta neurtu egin **AEPren eragina haren existentziako 7 urteetan**



Berrikuntza, pertsonak eta partaidetza

## Komunikazioa

**Adimen Emozionaleko Lehen Nazio Batzarrean** parte-hartzea.

**IKT eta ELT Lehen Barnetegia garatzen** parte-hartzea.

**Newsletter ELTak,** hamabosterokoa, AEPrekin konektaturiko pertsonentzat.

Argitalpena: **"Berrikuntzara bideratutako ekipoak entrenatzearen onurak".**

AEParen eta AKTIVATE proiektuaren aurkezpena eta **CIIEB Adimen Emozionaleko Kongresua** (Zaragoza).

**Blog El Diario de CIE** aktibatzea.

# Diplomazia berritzailea

Berritzailea den errealitate gisa nazioartean dugun posizionamenduan aurrera egiteko Innobasquek garatutako programa, geure erakunde bazkideen nazioartekotzean lagundu eta nazioartekoak diren nodo eraginkorrenekin loturak sortuz.



## Amerika

- Araucania-ko Udalerrien Elkartea (Araukania-Txile)
- AQ`AB`AL (Kosta Rica)
- Gorbea, Lumaco eta Villarrica-ko Udalak (Araukania, Txile)
- Cuernavaca-ko Udala (Estado de Morelos, Mexiko)
- Garapenerako Amerikarteko Bankua (BID) (Washington, AEB)
- Bentley University (Waltham, AEB)
